

Kultura

Guneen azokan, Ahotsenea Amilibiako orubean ipiniko dute, eta Irudienea Zugaza zineman > 11



Durango historian barrena aztertuta

'Durango Historian barrena' liburua koordinatu du Belen Bengoetxea EHUko irakasle eta arkeologoak > 3

Ginekologia gunea lekuz aldatuta, larrialdietarako leku gehiago izango dute > 4

Landakoko ginekologia zerbitzua anbulatorio zaharreko espezialitateen zentrora lekualdatu dute. Ginekologoak eta emaginak asteon hasi dira espazio berrian. Libre geratu den espazioa larrialdietarako erabiliko dutela azaldu du Jose Luis Balentziaga lehen sorospeneko arduradunak. Beharginek diotenez, larrialdien arazoa konpontzeko lantaldea handitu behar da oraindik. Langileek agerraldia egin dute asteon Jaurilaritzan.



Urbanizazio bikain batean, eremu berde askorekin eta leku paregabe batean etxebizitza bat lortzeko aukera
Traña - Errota urbanizazioa (MATIENA - ABADINO)

2,3 eta 4 LOGELAKO ETXEBIZITZA LIBREAK

2 eta 3 LOGELAKO ETXEBIZITZA TASATUAK 174.600€-tik aurrera. Garaje eta trastelekua barne



INMOBILIARIA SAN FAUSTO

630 993 167 - 944 571 700
www.sanfausto.es

Informazio gehiago eraikitze lanetan bertan



Elorrio > 7

Plan Orokorra onartu da, San Bizente Zabaleta izan ezik

Durangaldea > 6

'Gure Esku Dago' aurkeztuko dute bihar, Plateruenean

Berriz > 2

Maturanako bost etxebizitza salgai ipini ditu udalak

Abadiño > 2

Tratamientos Térmicos Iurretari isuna jarri dio Lan Ikuskaritzak

Herririk herri

> BERRIZ

Maturanako bost etxe tasatu ipini ditu salgai udalak

Azaroaren 26ra arte egin daitezke eskariak; 112.000 eta 145.000 euro arteko prezioak dituzte

> AMAIA UGALDE

Bi logelako lau etxebizitza eta hiru logelako etxebizitza bat jarri ditu salgai Berrizko Udalak. Margarita Maturanako etxebizitza tasatuak saltzeko hirugarren eskaintza du honako hau udalak.

Bost etxebizitzetatik bi udalaren jabegokoak dira, eta beste hirurak herritarrenak dira, baina udalaren Berriz SUSA erakundearen bidez salmentan ipiniak.

Azaroaren 26ra arte egin daitezke etxebizitzak erosteko eskariak. Orland Isoird alkateak azpimarratu du berriztarra iza-teagatik puntu gehiago lortzen dela eskarietan, baina edozein herritako jendeak erosi deza-keela etxebizitza tasatuetakoko bat. Etxebizitzek 112.000 eta 145.000 euro arteko prezioak dituzte. Pleguak udaletxean eta www.berriz.org atarian daude.

Berrizko Udala hogeitxebizitzen jabe da Margarita Ma-



Margarita Maturan hogenetxebizitzen jabe da Berrizko Udala.

turanan. Horietatik hamahiru alokairu sozialaren bidez daude okupatuta. Lehenago etxeak erosi egiten zituen udaleko Berriz SUSA erakundeak,

eta horren eraginez, 1,4 milioi euroko hipoteka-zorra dauka udalak. Horregatik, norbaitek etxebizitza tasatua saldu gura badu, udalak, erosi beharrean,

bitartekari lana egiten du, udaleko pleguak jarraituta. Espekulazioak saihesteko modu bat da. Prezioak KPIaren arabera igotzen dituzte urtero.

Inbertsioak nora bideratu berbagai herri batzarretan

Eguaztenean izango da lehen bilera; 60.000 euro non inbertitu adostuko dute

> A.U.

Auzobideak konpontzea, kultura edo kirol instalazioak hobetzea, trafiko arloko konponketak egitea... Hainbat gauzatarako erabili daitezke 60.000 euro. Inbertsioetarako diru hori nora bideratu pentsatzeko batzarrek egingo dituzte Berrizko udale-

txean, bata, azaroaren 20an eta, bestea, abenduaren 12an. Berriz lehenengo aldiz ipini dute martxan aurrekontuak herritarren parte-hartzeagaz adosteko prozesua. Udaleko hiru alderdiek adostutako ekimena da.

Azaroaren 20ko batzarrean (20:00etan hasita) berriztarren

ideia eta iritziak batzea izango da helburua. Udaletxeko teknikariek proposamenen arlo teknikoa, juridikoa eta ekonomikoa aztertuko dituzte. Balorazio hori abenduaren 12ko batzarrerara eroango dute. Orduan, lehentasunak argitu, eta egin beharreko ekintzak zerrendatuko dituzte.

Berbalagun ekimena euskaldun zahar barik

Euskara praktikatzeko hiru talde daude herrian

> A.U.

Berriz euskaldun berriz osatutako hiru talde daude izena emanda Berbalagunen, baina AEKtik azaldu dutenez, momentuz ez dago berriztar euskaldun zaharrik. Hori horrela, euskaldun zaharrei ere parte hartzeko deia egin diete. Azaldu dutenez, plana kafetxo baten bueltan

euskaraz berba egitea izaten da: “Euskaraz zeinekin praktikatu ez daukanari gune bat eta eredu bat ematea da helburua”.

Hiru taldeetako bat martitzetnetan batzen da, 18:30ean, eta beste biak barikuetan, 09:30ean eta 15:00etan. Informazio gehiago, Kultur Etxean edo 639 400 789 telefonoan.

> GARAI

Pedro Hilarión Sarrionandia oroitzuz

Domekan omenduko dute Sarrionandia; Rifeko amazigera hizkuntza ikasi eta ikertu zuen

> M.O.

Domeka honetan Pedro Hilarión Sarrionandia misiolari eta hizkuntzalaria oroitzuko dute Garain, bere jaioterrian. XIX. mendearen amaieran eta XX. mendearen hasieran Rifeko (Maroko) amazigera hizkuntza ikertu zuen, eta bere lana gorai-patzeko ekitaldia antolatu dute udalak, Gerediaga Elkarteak eta Bizkaiko Foru Aldundiak. Bere lana eta osteko aitortpena ez ziren gertaera errazak izan, baina gauzak aldatu egin dira. Joseba Sarrionandiak Garaiko hizkuntzolariaren ibilerak eta azterketak kontatzen ditu *Moroak gara behelaino artean?* liburuan.

Abade frantziskotarra zen garaitarra, eta 1892an Tetuane-ra (Maroko) bidali zuten. Han hasi zen amazigera ikasten. Ez zegoen ia libururik hizkuntza horretan, eta horrek ikasketa zaildu zion. Bere kabuz ikertzen hasi, eta 1905ean *Gramática de la lengua rifeña* argitaratu zuen. Gerora, hiztegi bat ere bai. 1913an Zornotzan hil zen, sendiari eginiko bisitaldi batean.

Domekan, 12:00etan hasiko da ekitaldia, berbaldiagaz. Ostean, Iban Gorritik egindako ikuskizun bat eskainiko dute, eta amaitzeko Sarrionandia iurretarraren liburuko pasarte batzuk irakurriko dituzte.

> ABADIÑO

TTI enpresari zigorra ipini dio Lan Ikuskaritzak

Lan Ikuskaritzaren ebazpenak 10.626 euroko zigorra ezarri dio Tratamientos Térmicos Iurretari

> JOSEBA DERTEANO

Tratamientos Térmicos Iurretari enpresak Abadiñon duen zentroko langile gehienek bost hilabete daramatzate greban. Zuzendaritza eta langileak batu, eta alde bien artean adostutako enpresa hitzarmena eskatzen dute langileek. Greba hasi zutenetik hona, zuzendaritza produkzioa “modu ilegalean” aurrera eramaten ibili dela salatu dute behin baino gehiagotan, langileen grebarako eskubidea urratuta. Gainera, greba komiteari araudia betetzen zen edo ez egiaztatzeko enpresara sartzea eragotzi izan dietela ere salatu izan dute. Bizkaiko Lan Ikuska-

ritzara eraman zuten auzia, eta hango teknikari bat enpresara etorri zen egoera bertatik bertara ikusteko. ELA sindikatuak jakinarazi duenez, Lan Ikuskaritzaren ebazpena jaso dute, eta ebazpen horrek 10.626 euro ordaintzera zigortu du enpresa. Gizarte Segurantzari ordaindu beharko diote kopuru hori.

Demanda auzitegian

Horrez gainera, arrazoi berak oinarri hartuta eta kalte-galerak eskatuta, ELA sindikatuak eta langileek demanda bat aurkeztu dute Bilboko Gizarte arloko Auzitegian. Azaroaren 20rako deitu dituzte auzitegian.

Independenteak Ikume izeneko plataformaren aurkezpen jaian

> I.E.

Azaroaren 9an, EAEko hainbat herritako Talde Independenteak batzen dituen Ikume izeneko plataformaren aurkezpen jaia ospatu zuten Laudion, eta bertan izan ziren Abadiñoko Independentek taldearen hainbat ordezkari, Jose Luis Navarro alkatea, tartean.

Demokrazia zuzena, herritarren partaidetza lemagaz, askotariko ekimenak burutu zituzten egun osoan, Laudion. Plataformaren proiektu politikoa aurkeztu zuten: “Hiru printzipiotan oinarriturikoa: partaidetza sustatzea, giza eskubideak bultzatzea, eta global pentsatu eta lokalean ekitea”.

> DURANGO

“Durangon gauza asko daude oraindik ikertzeko”

Durango eta bere ingurunearen historia aztertu dute, kutsu dibulgetzaileagaz

> MARKEL ONAINDIA

‘Durango historian barrena’ liburuaren koordinatzailea da Belen Bengoetxea. Historia irakaslea da EHUn, eta arkeologian ere badihardu. Esate baterako, berak zuzendu zituen Santa Anako indusketak. Leku esanguratsu horretan erantzun ditu galderak. Lanaz gainera, pasioa ere bada beretzat historia eta arkeologiaren arloa. Durangon oraindik zer aztertu badagoela dio, eta Andra Maria ingurua ipini du adibidetzat.

Nondik dator liburua egiteko ideia?

Gutxi gorabehera orain urte bi, Arte eta Historia Museokoak kontaktuan ipini ziren nigaz, Joseba Aizpurua, hain zuzen, eta esan zidan horrelako liburu bat argitaratzeko intentzioa zeukatela. Durangoko historia modernoa, gaurkotua eta zehatza, nolabait esateko, batuko zuen lana. Autore batek egin beharrean autore ugari egitea, espezialistek egitea pentsatu genuen. Gauza asko egin dira azken urteotan Durangon: arkeologian, dokumentazioan... Aurretiaz ere argitaratu izan dira lan onak eta teknikoak, baina aldizkari

espezializatueta. Guzti hori ipintzea eta kutsu dibulgetzaile bat ematea izan da helburua.

Zelako eboluzioa eduki du?

Durango, sortu zenetik, nukleo oso garrantzitsua izan zen. Apurka-apurka indarra hartzen joan da, eta Erdi Aroan sortutako herrixka batek protagonismo itzela hartu du eskualde osoan. Gaur egun ere hori nabaria da. Erdi Aroan hasitako prozesu bat da.

Durango beti izan da pasabide. Gurutzebide, esango nuke. Eta hori oso garrantzitsua da nukleo batek indarra hartzeko. Ez bakarrik merkataritzan. Erdi Aroan artisautza eta industria ere egon ziren: burdinarekin lotutako tailerrak... Ehungintza

“

Erdi Aroan sortutako herrixka batek protagonismo itzela hartu du eskualde osoan”

ere oso garrantzitsua izan zen hemen. Krisialdiak ere izan ditu; gogorak, gainera. Hau ez da lehenengoa. Baina beti atera da aurrera.

“

Andra Maria eliza eta bere ingurua ere oso interesgarriak dira momentu honetan”

Santa Anako indusketak gidatu zenituen. Garrantzi handia eman zitzaizen, ezta?

Indusketa guztiek daukate garrantzia. Izan ere, indusketa guztietatik panorama oso bat atera behar dugu. Bakoitzak Durangori buruzko datu batzuk eskaintzen ditu. Puzzle guztia eraikitzea da gure lana.

Beti egongo da zer ikertu, ezta? Zer falta da Durangon aztertzeke?

Espezialista bakoitzak gauza bat esango luke. Nire arlotik, Erdi Aroko hirigintzari dago-



Belen Bengoetxea, Santa Ana plazan.

kionez, iparraldeko eremuaren falta sentitzen dugu. Santa Ana hegoaldea da, eta nahiko argi geratu da horren eboluzioa. Iparraldeko eremu hori noiz sortu zen, adibidez. Andra Maria eliza eta bere ingurua ere oso interesgarriak dira. Hasierako eliza da, eta ingurune horretan zelan garatu den hirigintza, harresia alde horretan non dagoen... Gauza asko daude oraindik ikertzeko.

Durangori buruz badago zer kontatua, beraz.

Bai. Esku artean daukazu. Hemendik aurrera, hau hartu ahal da oinarri moduan, eta interesa daukan pertsona batek hartzeko moduko liburua da. Askotan, espezialista ez dena ikaratu egiten da lanekin. Mundu akademikoa eta gizartearen arteko distantzia hori kentzea, hurbilketa hori, ikaragarri gustatzen zait.

OHZ eta EIOZ zergetan elizak ordaindu duenaz galdetu du PSE-EEK

PSE-EEK azalpenak eskatu dizkio alkateari, Irigorasek OHZ eta EIOZren bidez elizaren ondasunen inguruan batutako dirua “zero” zela esan eta gero

> JONE GUENETXEA

Durangoko PSE-EEK OHZ (Ondasun Higiezinaren gaineko Zerga) eta EIOZ (Eraikuntzen, Instalazioen eta Obren gaineko Zerga) zergen bidez udalak elizaren ondasunetatik zenbat diru batu duen galdetu dio idatziz Aitziber Irigoras alkateari. Pilar Rios

sozialistaren arabera, “alkateak plenoan adierazi zuenez, batutakoa ‘zero’ euro da”. Dioenez, zerga horiek batzeko “ardura” udalak du, joan zen urteko ekainean sozialistek aurkeztutako mozio bat onartu eta gero. Ordura arte Elizak zuen salbuespen-fiskala erretiratu egin zela azaldu du.

Erantzuna

Aitziber Irigorasen berbetan, berriz, “mozioa dela eta, gure testuetan ‘salbuespen’ hitza kendu arren, arau honek indarrean dirau, nazioarteko hitzarmen baten ondorioz”. Durangoko Udalak hitzarmen hori ezin dela aldatu dio alkateak.

Ezkontza Azoka antolatu dute astebururako, Landako Gunean

> M.O.

Gaur hasi eta domekara arte ezkontza, bataio eta jaunartzeekin lotutako feria izango da Landako Gunean. D’Amore Ezkontza Azoka ipini diote izena, eta 25 bat stand egongo dira. Dendak Bai eta Zornotzako Dendariak elkarteak dira azokaren antolatzaileak, eta Amankomunazgoaren babesa daukate.

Azaldu dutenez, egunotan 10.000 lagunetik gora batzea espero dute. Aurreko edizio biak Zornotzan garatu dira, baina ekimenak Durangon dauka sorrera. Aurten, Durangora bueltan dator, eta, horretarako, merkatarien elkarteek hitzarmena sinatu dute. Kostuak merkatu eta sektorea indartzeko helburuz batu direla adierazi dute.

Arropa dendak, argazkilariak, ile-apaindegiak, jattetxeak... Arlo ugariak eskaintzak egongo dira aukeran ezkonduko direnentzat edota ospakizunen bat antolatu behar dutenentzat.

GALLASTEGI

www.gallastegiharategiak.com

1955ean sortua

Baimendutako harategia
Euskal Okela
Carnicería autorizada

Antso Estegiz, 1
946 812 247
48200 DURANGO

Zalduasolo, 8
946 827 038
48250 ZALDIBAR

enpresa-bilera ospakizunak urtebetetze jaunartze bataio

DURANGON ORDUKAKO

TXOKO ALOKAIRUA

688 861 975
info@zuretxokoa.com

www.zuretxokoa.com

Komertzialak 23 bidea, 3. esk. - 48.200 Durango - BIZKAIA

> DURANGO

Ginekologia gunea, larrialdietarako

Ginekologia gunea anbulatorio zaharrera lekuz aldatuta, eremu librea larrialdietarako erabiliko da

> MARKEL ONAINDIA

Landakoko anbulatorioko ginekologia zerbitzua anbulatorio zaharrera lekualdatu dute, espezialitateen zentrorra. Erditu aurreko gimnasia bakarrik eskainiko dute hemendik aurrera Landakon. Ginekologoak eta emaginak aste honetan bertan hasi dira leku berrian kontsultak hartzen. Aldaketa horren

Ginekologoak eta emaginak aste honetan bertan hasi dira leku berrian kontsultak hartzen

harira, lehen sorospeneko arduradun Jose Luis Balentziagak azaldu du libre geratu den espazioa larrialdietarako erabiliko dela. Bere ustez, Gabonetarako prest egon ahal da espazio hori, eta hiru edo lau gela berri edukiko lituzke.

Landakoko instalazioak txiki geratu direla adierazi du Balentziagak. Azken hamar urteetako eskaera bat dela esan du, eta aldaketa larrialdietako beharginen protestek bultzatu dutela aitortu du: "Euren arazo handi bat konponduko da horrela".

Baina, langileen batzordeko ordezkariak ez dira Balentziagak esandakoez fio. Kritikatu



Landakoko anbulatorioan larrialdietarako leku gehiago egongo dela esan dute.

dute urtarrietik ari direla gauza bera entzuten: "Pieza bat mugitzen dute zer edo zertan dabilzala erakusteko, baina kea da". Oraindik lantaldea handitu behar dutela gogoratu dute: "Ez badago pertsonalik, zertarako gura ditugu bost gela?".

Astelehenean Legebiltzarrean egon ziren beharginen

ordezkariak, eta Balentziagaren esanak agerraldi horren ondorio direla uste dute.

Legebiltzarrean salatu zuten zenbait langileren kontrako informazio-espediente zabaldu duela Osakidetzak. Gainera, lan baldintzen ondorioz azken hiru urteetan sortutako 300 arazoren berri eman zuten.

> ZALDIBAR

Herriko argazkilarien lana, azaroan, ikusgai

> I.E.

Joan zen asteburuan burutu zuen Ilargi taldeak hil honetarako antolatu dituen lau erakusketetan lehenengoa. Antonio Villanueva herriko argazkilariaren *Hain hurbil, hain urrun* erakusketa horren ostean, Jon Agirre argazkilari zaldibartarraren *Paris* lanak beteko du asteburu honetan Euskal Herria kaleko 8. zenbakiko aretoa. Gaur, 18:00etatik 20:00etara; bihar, 12:00etatik 14:00etara eta 18:00etatik 20:00etara; eta domekan goizez ikusi ahalko da bere obra.

Jon Agirre argazkilari zaldibartarraren 'Paris' lanak izango da asteburu honetan ikusgai

Azaroaren 29tik abenduaren 1era Zaldibarko argazki lehiaketako lanak ikusgai

Azaroaren 22, 23 eta 24an Patxi Badiolak egindako argazkiak izango dira ikusgai, eta azaroaren 29 eta 30ean, eta abenduaren 1ean, Zaldibarko argazki lehiaketara aurkezturikoak.



Domekako omenaldiko lore eskaintza.

Aralarrek dio partziala dela Memoriaren Eguna

Joan zen domekan egin zuten omenaldia Ezkurdin

> M.O.

Joan zen domekan Memoriaren Eguna ospatu zen, eta udalak ekitaldia egin zuen Ezkurdiko monolitoaren parean. Aralarrek parte hartu zuen bertan, baina adierazi du omenaldi hori partziala dela. Monolitoa,

"terrorismoaren biktimak bakarrik gogoratzeko egindako monumentua" dela esan du Aralarrek. Poliziaren eta talde paramilitarren biktimak ere gogoan izan behar direla dio, eta EAJri eskatu dio "aitorpen osorako bidea egin dezan".

> MALLABIA

Barredo organista Santa Zeziliako kontzertuan

Maritxu Roteta sopranoak ere parte hartuko du

> JONE GUENETXEA

Udalak, Jasokunde eta Mendibil abesbatzek eta Orraitio Euskara Elkartek Santa Zeziliako kontzertua antolatu dute

azaroaren 23rako, 20:00etan. Iaz Mallabiko organoaren mendeurrena ospatu zuten, aurtengo kontzertuan protagonista izango dela azaldu dute antolatzaileek.

Mendibil eta Jasokunde abesbatzek, trikiti eskolako ikasleek eta Lagun Artea ahots taldeak parte hartuko dute ikuskizunean. Aurtengo nobedadea, Ainhua Barredo organista bilbotarraren eta Maritxu Roteta soprano Mallabitarraren parte hartzea izango da. Kontzertuaren ostean, Gaztañerre jaia izango dute. Gaztañak eta edaria banatuko dute bertaratzen direnen artean.

Andreenganako indarkeriaren aurkako mozioa onartu dute

> J.G.

Mallabiko Udalak aho batez onartu du, Emakume Kontrako Indarkeriaren Aurkako Nazioarteko Eguna dela-eta, ge-

nero indarkeriaren aurkako idatzia. Dokumentuan udalak konpromisoa hartu du "berdintasun politikak garatzeko baliabideak (giza baliabideak eta baliabide ekonomikoak) urtetik urtera indartzea". Gaineratu dutenez, Mallabiko Udalak "indarkeria matxistari aurre egiten dioten emakume eta taldeentzako tokiko arreta zerbitzuak eratzea edo birdefinitzea" du helburu.

946 216 491 | Antso Estegiz, 1 Durango

I U N I K
ILEA PAINDEGIA

-20% Azaroan
%20ko deskontua
ile eta estetika lanetan
Kontsulta eta diagnostikoaren
bitartez zure estilora moldatzen gara

Ordutegia	
Astelehena	14:30/20:30
Asteartetik ostiralera	09:30/20:30
Larunbata	08:00/14:30

URTXINTXA
HEZIKETA JOSTAILUAK-ESKULANAK

Andra Maria kalea, 9 DURANGO Tel.: 946 815 017



Izan ezazu eztegu eksklusiboa gure Pergolan!



Harrison Etxean etapa berri bati ekin diogu Puntuan Konsulting turismo-enpresaren eta haren zuzendari Jaime Pagairen agindupean. Bai enpresak bai zuzendaria eskarmentu handia dute sektorean, San Roque Komentu Hotelaren ardura ere baitaukate.

Harrison Etxea leku ezin hobean dago, Zornotzaren bihotz-bihotzean, eta lorategiz inguratuta. Estilo ingelesean apaindutako 12 logela ditu, baita hainbat areto ere, besteak beste, beirate handiko Pergola. Bertan, 200 lagunentzako lekua dago, "Chill out" eremu eta guzti, eta aproposa da mota guztietako ekitaldiak antolatzeko: ezteguak, bataioak, jaunartzeak, biltzarrak... Edo besterik ez bada, mokadutxo bat jateko eta tragoren bat hartzeko.

San Pedro, 12

48340 - Amorebieta - Bizkaia - Tfno.: 946 300 530

www.hotelharrison.com

hotelharrison@hotelharrison.com

*Harrison hotelaren eskutik bi pertsonarentzako
afaria eta gaua zozkatuko ditugu*

**Zelan deitzen da domekan Garain omenduko
duten misiolari eta hizkuntzalaria?**

ERANTZUNA: zozketa@anboto.org-ra edo Anboto astekarira - Bixente Kapanaga, 9 - 48215 Iurreta
Aurreko zozketako irabazlea: Iraide Iriondo. Zorionak!

> DURANGALDEA

Alaña, Azueta eta Aiarzagüena Libre Egunerako deia egiten.

‘Gure Esku Dago’ aurkeztuko dute

Bihar aurkeztuko dute erabakitze eskubidearen inguruko dinamika, Plateruenean, 11:30ean

> M.O.

Bihar goizean Gure Esku Dago dinamika aurkeztuko dute, Plateruena Kafe Antzokian. Dinamika hori Euskal Herriaren erabakitze eskubidearen alde sortutako egitasmoa da, eta 2014ko ekainaren 8rako mobilizazio erraldoia deitu dute: Durango eta Iruñea lotuko dituen giza katea. Mobilizazio horren inguruko ekitaldia izango da biharkoa. 11:30ean hasiko da.

Sektore ugaritako politikariek eta pertsona ezagunek babestu dute dinamika berria. Giza kate horretan parte hartzeko deia egin dute dagoeneko, eta www.gureeskudago.net atarian eman behar da izena. Durango eta Iruñea artean bakoitza non egongo den ere aukeratu ahal da formulario bat beteta.

Dinamikaren sustatzaileen artean, *Gazta zati bat* dokumentalaren egileak daude, baita Berrizko *Kantxa zati bat* ekimenekoak ere. Azken horien izenean Jabier Azpitarte EAJko alkate ohiak egingo du berba bihar.

Kanpainaren promoziorako abesti bat egin dute Kepa Junkerak eta Eñaut Elorrietak, Kirmen Uriberen letra erabilita. Abesti hori bideoklip batez zabaltzen dabilta, eta dozenaka kultur gilek parte hartu dute.

Ekainaren 8rako mobilizazio erraldoia deitu dute: Durango eta Iruñea lotuko dituen giza katea

> ATXONDO

Martzaako jubilatuek bazkaria dute Etxosten

San Martin eguna dela eta urtero egoten da bazkaria

> JOSEBA DERTEANO

Astlehenean, San Martin eguna ospatu zuten Martzaa auzoan. Urtero legez, San Martin elizan meza entzun, eta, ondoren, bertan batutako denentzako luntxa egon zen elizpean, musikak lagunduta. Gainera, urteroko ohitura da San Martin eguna ospatzen duten asteko barikuan Martzaa auzoko jubilatuentzako bazkaria antolatzea. Bazkari hori gaur egingo dute,

13:30ean, Apatako Etxoste jate-txean. Bost eta zortzi jubilatutako gure batzen dira urtero bazkari horretara, eta adin bertsuko lagunen arteko hartuemanak sendotzeko proposa izaten da.

Udaletxeak emandako diru-laguntzak estaltzen ditu San Martin eguneko ospakizunak eta jubilatuen bazkaria, eta, auzotarren borondatezko lanari esker antolatzen dira jaiak urtero.

Libre Eguna, epaiketen aurrean elkartasuna adierazteko eguna

Durango eta Iurretan garatuko dituzte Libre Eguneako ekintzak, hilaren 23an

Azaroaren 23an Libre Eguna ospatuko dute Durango eta Iurretan. Urriaren 14az geroztik 76 euskal herritar epaitzen dabilta Auzitegi Nazionalan, Segi eta Herriko tabernen auzietan, eta auzipetuei elkartasuna adierazi gura diete. Enrike Alaña durangarra, Eñaut Aiarzagüena iurretarra eta Ibai Esteibarlanda elorriarra dira auzipetuetako batzuk. Zortzi eta sei urteko kartzela zigorrak eskatu dituzte eurentzat. Gainera, 110 elkarte ixteko arriskuan

daude; Durangoko Intxaurre da horietako bat. Intxaurreko Ibon Azueta *Txutxi* ere egon behar izan da Madrilan, baina beste elkarteetako kideen antzera ez dago auzipetuta. Alaña, Azuetak eta Aiarzagüenak ere egin dute Libre Egunerako deialdia.

Epaiketak alde batera utzi, eta konpromisoak hartzeko eta konponbidearen alde egiteko garaia dela uste dute antolatzaileek. Elkartasun keinuaz gainera, epaiketen gastuei aurre egiteko dirua batu gura dute.

EGITARAUA**IURRETA**

11:30 Ume-jolasak, Dantzarin.
12:30 Kantu-poteoa.

DURANGO

11:30 Puzgarriak eta pintxoak, Andra Marin.
15:00 Herri bazkaria.
18:30 Kalejira zaratsua.
21:00 Kontzertuak Intxaurren: Exaixu eta DJ Bull.

Bibotea utzi dute, minbiziaren kontra sentsibilizatu guran

Mundu mailako ‘Movember’ kanpainagaz bat egin dute hainbat gizonek

> M.O.

Durangaldeko hainbat gizonek bibotea utzi dute. Herritarren arreta deituta prostata eta barrabiletako minbizien kontra sentsibilizatzea da euren helburua. Mundu mailan azaroan garatzen den *Movember* kanpainagaz bat egin dute horrela. Asko kirolariak dira. Esaterako, Elorrioko eta Durangoko errugbilariak.

Duela hamar urte Australian sortu zen kanpaina, eta nagusiki errugbi munduan zabaltzen da. Azaro osoan edukiko dute bibotea.



Elorrioko errugbilariak, entrenamendu batean.

> OTXANDIO

Energia kontsumoa doan aztertzeak aukera

Etxeko energia kontsumoa doan aztertzeak izen-emate epea ireki du udalak hilaren 29ra arte

> J.D.

Negua heltzen denean etxebizitzetako energia kontsumoan igoera gertatzen da, batez ere, berogailuaren erabilerak eraginda. Energia kontsumoagaz arduratuta dauden herritarrei doako azterketa egiteko aukera eskainiko die udalak. Horretarako, izen-emate epea azaroaren 29ra arte ireki dute, udaletxean.

Horrez gainera, udala sektoreko hainbat enpresagaz elkartu da arlo horretako informazioa batzeko. Bilera horietan jasotako datuak eta ateratako ondorioak herritarrei jakinarazteko batzarra antolatu dute. Batzar hori zapatu honetan egingo

dute, 11:30ean, Otxandioko kultur etxean.

Aurrekontuen batzarrak

Bestalde, 2014. urteko aurrekontuak lantzeko prozesuaren barruan, Hirigintza Batzordeak auzo batzarrak antolatu ditu. Herriko hirigintzari dagokionez, herritarrek ikusten dituzten premia eta gabeziak jaso nahi dituzte. Azaroaren 19an batzar bi deitu dituzte: 18:00etan, Anteparaluzetako plazan, eta, 19:30ean, San Antonioko ermita aurrean, San Antonio eta Morgaolako bizilagunentzat. Azaroaren 21ean, Mekoletako Arkotxen batuko dira, 19:00etan.

> IURRETA

Gaztedi Durangalderako 6.000 euro

> AITZIBER BASAURI

Gazteria arloan tokiko politikak garatu eta sektoreari bultzada bat emateko sortu da Gaztedi Durangaldea, “eskualde proiektuak” diseinatzeko eta inplementatzeko. Bizkaiko Aldundiak sortu duen Gaztedi Bizkaia programa barruan eratu da Gaztedi Durangaldea. Ekimenagaz bat egin dute eskualdeko hainbat udalek, eta bakoitzak bere aurrekontu osoaren araberrako ekarpena egingo du. Iurretan 6.000 euro inbertituko dituzte.

2103-2014 urteetako ekitaldiak finantzatzeko hitzarmenak sinatu behar dituzte udalek; baita 2015era begira ere, sinatzaileek hitzarmena luzatu gura badute. Aldundiak ere lagunduko du Gaztedi Durangaldea proiektua finantzatzen.

> DURANGALDEA ASTEON**Bego Garaizabal gogoratuko dute Elorrion**

Berrio-Otxoa jubilatuen elkarteak antolatutako Kultura Astearen barruan, urteetan elkarteko presidentea izan den eta oraintsu hil den Bego Garaizabal gogoratzeko ekitaldia egingo dute astelehenean, 17:00etan. Gainera, eguenean, 17:30ean, musika eskolakoek kontzertua eskainiko dute.

‘Bestearen begirada’ dokumentala ikusgai gaur, Plateruenean

Gaur, 20:00etan, *Bestearen begirada* Txelu Angoitiaren dokumentala estreinatuko dute Plateruenean. Dokumentalak Durangoko Inmigratio Sailak egin duen argazkigintza tailerrean du sorburua, eta Durangon dauden kultura ugarien arteko elkarbizitzan sakontzea du helburu.

**Alberdi harategiak irabazi du Bizkaiko erara egindako odolkien munduko lehiaketa**

Txarriduna txerri akademiak 18. bider antolatu du, aurtan, Bizkaiko erara egindako odolosten munduko txapelketa, eta Durangoko Alberdi harategiak irabazi du. Aurtan bigarren bider irabazi du (2009an ere irabazi zuen), eta beste hiru bider finalista izana da. Bilboko La Granja jate-txean egin zuten sari banaketa. Txarriduna akademiak urte hasieran antolatutako txorizo txapelketan ere finalista izan da Alberdi harategia.

> ELORRIO

Plan Orokorra onartuta, baina eremu baten salbuespenagaz

Udala pozik agertu da EAEko Auzitegi Nagusiak emandako ebazpenagaz

> MARKEL ONAINDIA

2011n Elorrioko Hiri Antolamendurako Plan Orokorren kontrako (HAPO) salaketa ipini zuen Auzo Koordinadorak, bide administratiboa amaitu eta gero. Bada, EAEko Auzitegi Nagusiak HAPOa onartu du, baina bertan zehazten den eremu bat ez: San Bizente-Zabaleta. Koordinadora erabaki oso hori errekurritzea aztertzen dabil.

Udala pozik agertu da ebazpenagaz. Onartuta geratzen dira San Anton Barriako babes ofi-

zialeko 52 etxebizitzak, eta Pulla-Azkarretan 10,50 hektareako industriagunea. Ordezkariek uste dute ebazpenak Elorrioren garapen estrategikoa bermatzen duela babes ofizialeko etxeen eta industriaren arloan.

Baina koordinadorak azaldu du eurei ere arrazoiak eman dietela San Bizente-Zabaleta eremuaren gaian, eta horrek HAPO guztian eragingo duela. Lince enpresa zegoen eremu librea zehaztu barik geratu zen. Horri funtzio bat eman behar

zaiola esan du Auzitegiak. Koordinadorakoen ustez, hor etxeak edo fabrikak eraiki behar badi-ra HAPOko proiektuak aldatu beharko dira. Euren iritziz, hobe da industriagunea hor eraikitzea, eta Pulla-Azkarretako nekazal lurak ez erabiltzea.

Joseba Mujika alkateordeak esan du San Bizente-Zabaleta-ko eremurako aurreikusitako erabilera ez dela aldatuko. Hor ere etxeak egitea pentsatuta dagoela, eta etorkizuneko zatikako plan batean zehaztuko dela.



Elorrioko ikuspegi orokorra. Behealdean, San Bizente-Zabaleta eremua.

> MAÑARIA

Aurrekontuetarako proposamen bila

Aurrekontu parte-hartzaileak garatuko dituzte

> M.O.

Udalak aurtengo ereduari eutsi, eta aurrekontu parte-hartzaileak garatuko ditu 2014rako. Prozesu hori hasi du dagoeneko, eta hasi da herritarren iritzia eta proposamenak batzen. Horretarako, fitxa batzuk banatu ditu, eta gura dutenek fitxa hori beteta egin ahalko dituzte ekarpenak. Udaletxean edo liburutegian entregatu beharko

dira fitxak azaroaren 22a baino lehen. Gura duenak helbide elektronikoz ere bidali ditzake.

Proposamenak jaso eta gero, horiek aztertzeke talde bat sortuko dute herritar batzuekin eta teknikariek. Bertan parte hartzeko deia ere egin dute. Hortik aurrera, zein proiekturi lehentasuna eman erabakiko dute. Udal batzordean landuko dute gaia azkenik.

Agenda 21eko batzarra egingo dute datorren eguenean

Datorren eguenean, Tokiko Agenda 21eko foroa egingo dute Mañarian. Iazko ekarpenek eduki duten ibilbidea baloratu, aurtan egindako proiektuak aztertu, eta 2014rako proposamenak ematea izango da batzarreko gidoia. Udalak adierazi du garrantzitsua dela herritarrek batzarrean parte hartzea, “guztion artean gure udalerriaren bizi kalitate maila hobetzeko”.

> IZURTZA

Saharako errefuxiatuei laguntzeko janari bilketa

Herria auzo elkartearen kanpainagaz bat eginda, janaria batzeko bi toki bideratuko ditu udalak

> JOSEBA DERTEANO

Durangoko Herria auzo elkar-teak Saharako errefuxiatuei laguntzeko janarien eta lehen premiako produktuen bilketa egingo du urtero. Aurreko aldietan legez, aurtan ere Izurtzako Udalak bat egingo du ekimen horre-gaz, eta janariak uzteko bilgune bi bideratuko dituzte: Udaletxea bera (11:30etik 15:00etara) eta

medikuen kontsulta. Honako janari ez galkor edo produktu hauek eraman daitezke: pasta, arroza, lekaleak, azukrea, sardinak eta konpresak. Urtarrilaren 16ra arte egongo da zabalik Herria auzo elkartearen kanpaina. Ondoren, otsailean batutako produktuekin Karabana Solidarioa abiatuko dute Tindufeko (Aljeia) kanpamendura.



42 urte euskal basoen zerbitzura



Nervión

Pinuarekin egin daitekeen paperik onena!

Jasangarritasuna bermatzen dugu honako ziurtagiri hauen bitartez:



► Berbaz

Miren Iturriagaetxebarria | Durangaldeko AEK-ko arduraduna

Urko Rodrigez | Kurutziaga ikastolako zuzendaria

“Nafarroa hegoaldean oso egoera gaitza dute euskalgintzan eta nekazaritzan”

Errigora ekimenean parte hartzen dabilta ikastolak eta AEK, beste batzuen artean. Nafarroa hegoaldeko produktuen otzarak dituzte salgai, bertako nekazariei eta euskalgintzako elkarteei laguntzeko. Auzolana da Errigoraren ardatza.



“

Iaz 34.000 euro batu ziren Argia ikastolarako. Aurten euskalgintzako beste eragile ugari batu dira Errigorara”

“

Erriberan euskaltzaleentzako ez dago testuingururik, ez laguntzarik, ez ezer”

> AMAIA UGALDE

Piper gorriak, olioak, potxak, orburuak, zainzuriak... daude Errigorako otzaran. Durangaldeko ikastoletan, AEK-ko euskaltegietan eta hainbat taberna eta enpresatan daude salgai. Otzaren bidez lortutako dirua ekoizleentzat izango da zuzenean, eta % 25 Erriberako euskalgintzarentzat. Aste honetan amaituko da Errigora ekimeneko kanpaina. Azaroaren 25etik abenduaren 1era banatuko dira produktuak.

Zelan doa kanpaina? Otzara asko saldu dituzue?

Urko Rodrigez: Kanpaina ondo joan da. Gurean hirurogei bat eskari dauzkagu.

Miren Iturriagaetxebarria: Guk hogeita bost otzara inguru saldu ditugu.

Errigoran euskalgintzako hainbat elkarte zaudete.

U.R.: Iaz hasi zen ekimena, eta hasiera batean ikastolen barruan bakarrik egin zen gauza

bat izan zen. Nafarroako eremu ez-euskalduneko ikastolei laguntzea zen asmoa. Momentu horretan Tuterako Argia ikastolari laguntzeko, egoera kritikoa zelako. Horrela abiatu zen kanpaina. 34.000 euro lortu ziren ikastolarako. Aurten, kanpaina handitu egin dute, eta AEK, Sortzen Ikasbatuaz, eta eskola publikoa ere badaude. Salmentaren %25 Erriberako euskalgintzara bideratuko da.

Nafarroa hegoaldeko euskalgintzaren egoera nahiko gaitza da, ezta? Zelan dabilta hango AEK eta ikastolak?

M.I.: Euren oso gaitz daukate. Han oso euskaltzalea izan behar zara euskara ikasteko. Dena da eragozpen. Irakasle edo ikasle izan, kilometroak egin behar dituzu euskaltegiraino. Taldeak oso txikiak dira, eta euskaltegiak ez daude edonon.

U.R.: Ez dago testuinguru euskaldunik.

M.I.: Ez dago testuingururik, ez dago laguntasunik, ez dago ezer.

Daudenak ahal dutena egiten ari dira, egoera oso kaskarrean.

U.R.: Azken batean, bizirauten ari dira.

Nafarroako produktuak bultzatzea du oinarri Errigorak.

U.R.: Gaur egungo globalizazioan, Nafarroako produktuak merkaturatzeko sekulako zailtasunak dauzkate, eta hori izan zen kanpainaren abiapuntua. Arazo horri buelta emateko produktuak kausa bigaz merkaturatu dituzte. Bata, eurena, noski, produktoreena, eta, bestea, euskalgintzaren kausa.

M.I.: Euren produktuei aterabidea ematea da, azken batean. Globalizazioagaz sortzen den konpententzia ikaragarria da eurentzako.

U.R.: Multinazionalen esku-hartzeagaz, gaur eguneko Nafarroako zainzuriak Txinatik edo Perutik etorritakoak dira.

Errigoran lanean dabilzan pertsonak auzolanean dabilta.

M.I.: Bai. Kontuan eduki merka-

tuko prezioan 50 euroan saltzen direla otzarak. Prezio hori mantentzeko ez dago besterik: Jende pilo batek egin behar du borondatezko beharra: Batzuek ekarri, besteek batu, beste batzuek zabaldu... Horrela izan behar du. Eta, beno, nahiko ohituta gaude euskalgintzakoak horrela ibiltzera. [Barre egin dute biek].

U.R.: Bai, autokontsumoa da hori. Baina, beno, horrela irteten dute aurrera hainbat proiektuk!

Proiektuaren berri jakin zenu-tenean, zer iruditu zitzaizuen?

M.I.: Ni harrituta geratu nintzen. Bonbillatxoren bat pizten zaion jendea ere badago! Berez, zerikusirik ez daukaten bi kontu dira, eta Nafarroa hegoaldeagaz lotu dituzte fisikoki. Egoera eskasa dute bai euskara munduan, bai nekazaritzan. Hori uztartzea oso ideia ona izan da. **U.R.:** Ideia ona da, eta meritu handia daukate horren ardura-dunek; hau guzti hau dinamizatzeke eta martxan jartzeko behar handia hartu dute. Komu-

nikaziorako ere bideo eder bat egin dute. YouTube *Errigora* ipiniz gero, topatuko duzu. Polita da, ulertzeko erraza, eta laburra. Pentsatzen dut honek bere ibilbidea edukiko duela, eta gorantz joango den proposamen bat izango dela. Bide batez, euskal kulturgintzak elkarri laguntzeko daukan kohesioa ikusten gabilta.

Udazkenean eta udaberrian egin gura dituzte otzaren kanpainak.

M.I.: Udaberrikoa lehenengo aldiz egingo da, eta produktu freskoekin egingo da. Kopuru handiekin eta beste modu batera.

Elikadura burujabetzarako bidea ere bada.

U.R.: Bai, eta krisi egoeran, gainera, badirudi ekoizle txikien gaineko sentsibilizazioa handitu egiten dela. Gu ikastolan ere bagabiltza bertako produktuekin lanean. Hausnarketa egin dugu, eta jantokiko menua pixka bat moldatu dugu.

*garraio gastuak**
DOHAINIK!

www.oizegin.com

**txokolazteko
plumcake-a
4,71 €**



**intxaurrak
2,93 €/500 gr**



**porru sorta
1,76 €**



**Urko ezti
9,16 €/kg**

**kalabaza
1,18 €/kiloa**



B.E.Z. barne

* garraio gastuak dohainik bakarrik Durangaldean eta Lea-Artibain

... eta gabonetako otzarak
prestatzen ditugu

OIZ EGIN
on egin

baserriko produktuak on line!

Preziorik onenak!

Konfidantzazkoak!

Euskal kalitatea!

94 620 36 11

info@oizegin.com





Burger King eta McDonald'si aurre!

Orain gutxi entzun, ikusi eta irakurri dugu Durangaldean Burger King eta McDonald'sek janari bizkorreko lokal bana zabaltzeko asmoa dutela. Lehenengoak, abendurako eduki nahi du zabalik, eta, bigarrenak, ekainerako. Segur aski, gutako askok ez dugu gertaera horiengan arazo handirik ikusiko, beste batzuei ez die inongo ardurarik sortuko, eta asko poztuko direnak ere egongo dira. Baina kontziente al gara multinazional bi horiek Durangaldera etortzeak zer suposatzen duen?

Badakigu gure eskualdeko egoera nolakoa den. Gazteok lana aurkitzeko zailtasunekin edo ezintasunekin gabilta, eta lanean zebiltzanak ere kalean edota baldintza okerragoetan ari dira beren bizitza proiektua aurrera eramaten. Egoera honetatik ia inor ez da libre; dagoeneko, goi mailako prestakuntzak ere ez ditu hain merkatu eskusibo eta berekoia nahiak betetzen, esperientzia gabe, esperientzia faltari aurre egitearen kontua ez aipatzearen.

Egoera horretan hurbildu zaizkigu mundu mailan hainbesteko arrakasta izan duten enpresa horiek. Burua makurtuen dugun unean, duintasun gutxien dugunean eta txanpon batzuen truk edozertarako prest gaudenean datozkigu. Irabazteko gehien duten unean datoz: orain arte ukitzen saiatu ez diren eremu berri bat; hanburesak emateko ez ezik, beste edozertarako prestatuta dauden gazte langile prestu mordoa; zabor kontratuak; lan baldintza esplotatzaileak; gure baserrietatik zuzenean ekarritako janari merke eta hilgarria jateko prest dagoen gizarte gaixoa...

Ez datoz gure gazteei zeregin bat eta lan bat ematera, ez datoz gure elikadura zaintzera, ezta zoriontasuna oparitzera. Ez dituzte soilik hanburesak saltzen, bizi eredu berri bat ezartzera datoz. Otordu bizkor eta merkeak izan ditzagula esango digute, jaten ari garena zer den begiratu gabe. Gero merkataritza zentro erraldoietan erosketak egitera animatuko gaituzte, zinematik pasa, eta gauez ere beste plastiko dosi bat hartzera gonbidatzeko.

Kontsumoa eta kontsumoa. Kontsumitzeko aske gara, eta eguneroko gure kontsumoaren kate luzeen artean presoago gaude. Ez gaituzte elkarrekin hizketan nahi, eztabadaidatzen, jolasean, kirolean, ohean, kalean, protestan. Diruaren mugimendu huts bihurtu nahi gaituzte, haien poltsikoa helmuga duen diruaren garraio. Askatasun faltsu batean murgildu, eta gure esplotazio laboral eta intelektualaren bitartez aberastea da haien asmo bakarra. Durangaldea da mundu osoan daramaten esplotazio horren hurrengo pausoa.

Ez. Ez dugu behar. Ez dugu nahi. Ez diegu ongietorririk egingo, eta ez gara besoak gurutzatuta geratuko gura dutena egiten duten bitartean. Eraso horren aurrean altxatuko gara, eta ez dugu onartuko gure herrien aurka doan proiekturik, ez eta proiektu horien konplizerik. Horrela, dei egiten diegu gure herrietako gazteei denok batera altxatu eta irekiera honi aurre egitera.

Durangaldean Burger King eta McDonald'sik ez!

Ernai Durangaldea

Prentsa oharra

Euskal txirrindularitzan Euskaltel-Euskadi UCI eliteko taldea desagertzeak, batetik, eta ondorengo gertaerek, bestetik, S.O.S. Ciclismo Euskadi mugimendua eratzea eragin dute. Horren aurrean, Bizkaiko Txirrindularitza Federakundeak publiko egin gura du mugimendu sozial horren alde dagoela, eta laguntzeko prest dago datorren denboraldiari begira, maila kontinentaleko talde bat osatzeko proiektua gauzatu dadin.

Hori lortzeko, premiazkoa da talde bakarra izatea eratuko den talde berri hori, kirolariengan kaltegarriak diren lurraldekeriak eta norberekeriak alde batera utzita.

Horregatik, bada, Federakundetik honako proposamen hau egin dugu:

1. Araba, Bizkaia eta Gipuzkoako Federakundearen ordezkariek osatutako mahai bat edo batzorde bat eratzea.
2. Kudeaketa adostua eta gardena oinarri izango duen proiektu bat egitea.
3. Proiektu hori euskal erakundeei aurkeztea, hiru Foru Aldundiei eta Eusko Jaurlaritzari, baita interesa izan dezaketen enpresa, enpresa-talde eta zaleei ere.

Bizkaiko Txirrindularitza Federakundea



Zure iritzia, gutuna edo fotodenuntzia helarazteko helbideak:

Bixente Kapanaga 9, 48215
astekaria@anboto.org

- Izen-abizenak • telefonoa
 - helbidea • Nortasun Agiriaren zenbakia
- Alderdi, elkarte edo taldeko iritziak kide baten izenean sinatuta eta ANBOTOren irizpidean jarraituz zuzenduta publikatuko dira.

-DATUOK BARIK EZ DA GUTUNIK ARGITARATUKO-

SEI HANKAKO MAHAIA

DANI MAEZTU

Aralar



Krisiaren aurkako laguntza fiskalak

“Pertsonak asko axola zaizkigulako, pertsona bati begira eta pertsonen beharrianak betetzeko egiten dugu politika”. Hori da politikari askoren leitmotib garaiakidea.

“Pertsonak gure politikaren erdigunean kokatzen ditugu”, esaten digute erakundeak kudeatzen dituzten agintari askok. Eta lortu dute, kontzienteki, esaldi hori esanguraz hustea, ezinezkoa baita pertsona guztiei begira politika egitea.

Hori ikusita, bada garaia ezkerreko politikariek gauzak argi izateko eta esateko: lehendabizi pertsonak jartzen dituztela esaten duten agintariek tranpa egiten digute. Egia da pertsona jakinen alde lan egiten dutela; baina subjektua ezkututzen digute. Norentzat gobernatzen du EAJk? Langile publikoen soldatatzak izozten baditu, Osakidetza gatazka egoeran jartzen badu, Cabacas auzian ez badu erantzulerik topatu nahi, ustelkeria kasuak disimulatzen baditu... Norentzat ari da politika egiten? Adibide batzuk baino ez dira, mingarriak guztiak. Hala ere, bada atentzioa eman didan beste adibide bat: 2014ko Jaurlaritzaren aurrekontuan, AHTari Garraio Sailaren aurrekontuaren %60 eman zaio (365 milioi); Euskotreni, metroari eta tranbiari, %36. Eskualdeetatik ibili behar diren langile, ikasle eta pentsiodunei begira hartu dute erabaki hori?

Bai, egia da, pertsona bati begira gobernatzen dute. Baina pertsona horiek zenbait enpresatako administrazio kontseiluko kideak, edota alderdiko karneta duten enpresa jakinetako jabeak izaten dira.

Laguntzaileak:



anboto
komunikabideak

Bixente Kapanaga, 9
48215-Iurreta
(Bizkaia)
Tel.: 94 681 65 58
Erredakzioa:
94 623 25 23
Publizitatea:
94 621 79 02
publi@anboto.org

2013ko azaroaren 15a
11. urtea - 522. alea

Zuzendaria:

Jone Guenetxea.
Erredakzio burua:
Joseba Derteano.
Administrazio burua:
Itziar Belar.
Administrazioa: Miren Abasolo.
Publizitatea: Goretzi Alonso.
Amaia Huarte, Itxaso Altuna.
Erredakzioa: Aitziber Basauri,
Itsaso Esteban, Markel Onaindia
eta Amaia Ugalde.
Maketazioa: Eider Alberdi.
Zuzentzailea:
Jon Ander Urkiaga.
Argazkilaria: Kepa Aginako,
Zaldua Fuertes.

Kulturaren plaza izaera indartu du Durangoko Azokak zortzi gunetako eskaintza zabalagaz

Abenduaren 5ean zabalduko dute 2013ko Durangoko Azoka; inoiz baino irekiago datorren kulturaren plazak prest dauzka barruko zortzi guneak. Sorkuntzaren arlo ugaritan diharduten elkarte, sortzaile eta eragileen lanagaz atondu dute egitaraua



Durangoko Zugaza zineman egin zuten atzo prentsaurrekoa, Irudienea gunea hartuko duen aretoan.

> ITSASO ESTEBAN

Nerea Mujika Gerediaga Elkarteko presidentea, eta 48. Durangoko Azokan lanean jardun duten zortzi guneen izenean Oihane Barrueta Saguganbara guneko, eta Arrate Illaro Irudienea guneko arduradunek eskaini zuten prentsaurrekoa, atzo. Hain zuzen, azokaren aurtengo nobedadeetako bat den aretoan, Zugaza

zineman, egin zuten agerraldia: areto horrek hartuko du ikus-entzunezkoen plaza.

Arrate Illaro Irudienearen ardura-dunak azpimarratu zuenez, “erronka da Irudienea hona ekartzea, eta gogotsu gatzoz”. Euskaraz ekoitziriko ikus-entzunezkoen emanaldiak hartuko ditu Durangoko Azokaren gunek berriak aben-

duaren 5etik 8ra, egun osoan eta publiko guztientzako: “Kalitatea irabaziko dute emanaldiek”, adierazi du Illarok. Emakume sortzaileen inguruko mahai-inguru bat ere eskainiko du, besteak beste, Irudienea ikus-entzunezkoen plazak.

Atzoko aurkezpenean aurreratu zuten, datorren astean aurkeztuko dute Durangoko 2013ko Azokako gune guztien

egitarau zehatza.

Ibaizabal errekaaren alde bietara Durangoko Azoka zelan hedatu den erakutsi zuten antolatzaileek atzoko agerraldian. Zortzi gune daude aurtengo azokaren mapa zabalean markatuta: Areto Nagusia, Ahotsenea, Kabi@, Irudienea, Saguganbara, Plateruena, Szenatokia, eta Azoka telebista. Horieta guztietan izandako “elkarlan handiari esker, kultur eskaintza oparagoa” izatea lortu dutela nabarmendu zuen Nerea Mujikak, eta, era berean, Durangoko Azoka antolatzen jardun duen koordinazio mahaiaren lana goraipatu zuen.

Aurten, Ahotsenea sortzaileen plazak edukiko duen kokagunea ere nobedadea izango da. Landako Gunea eta Alde Zaharra hurbildu, eta lehen trenbidea zegoen lekuan ipiniko dute 40 sortzaileen zuzeneko kontzertuak eskainiko dituen karpia. Taldeek izena emateko epea zabaldu eta bi egunetara bete da aurten Ahotse-nearen programazioa: abenduaren 5etik 8ra etenik barik emanaldiak eskainiko dituzte Euskal Herriko musikariek.

Oihane Barrueta, Berbarok elkarteko kideak eta Saguganbara gunearan arduradunak, egin zuten azokak izango dituen zortzi guneen bozeramaile lana, atzo, eta “euskal kultura gozatu eta bizitzeko” gonbita luzatu zuen.

“Transmisioa lantzeko tailer ugari antolatu dugu”

Berbarok elkartea prest du Durangoko Azokako txikien eta handien plaza. Oihane Barrutiak aurkeztu du Saguganbara

Zer asmoz dihardu Saguganbarak?

Hasieratik, transmisioari lekua egiteko asmoz dihardugu Saguganbaran. Oso inportantea iruditzen zaigu umeentzako espazioa izan arren, helduekin etorri daitezela, eta transmisioa lantzeko tailer ugari antolatu dugu.

Eskaintza anitza egiten duzue bertan.

Bai, oso eskaintza zabala egiten dugu: areto txikian, plaza mugatuekin eta formatu txikiagoan egiten ditugu tailerrak, eta areto nagusian, aurkezpenak eta ikuskizunak izaten dira. Aurten, lehenengoz, gurasoei zuzenduriko berbaldiak eskainiko ditugu, eta mahai-jokoen tailerrak edo ume eta gurasoentzako kantu-jolasak ere bai, esaterako.

Gurasoei zuzenduriko hitzaldi horiek zeren ingurukoak izango dira?

Iaz transmisioa lantzeko helburuz antolatu genituen tailerretan guraso batzuek egin zuten proposamenetik sortu da

berbaldion eskaintza. Haur literatura emozioekin lantzeko aukera eskaini gura dugu. Oso formatu parte-hartzailea izango dute tailer laburrok; Juan Cruz Igerabide idazleak eta Juan Carlos Alonso psikologoak eskainiko dituzte.

Kantu-jolasen ekimena zer da?

Berbaron antolatzen ditugun udalekue-tara datozen umeen gurasoen eskaririk sorturikoa da kantu-jolasen ideia: umeekin jolastu eta kantatzeko baliabiderik ez dutela adierazi digute guraso askok, eta hutsune hori betetzea da asmoa. Urte osoan nahiko gure ikastaro hori eskaini, eta pentsatu dugu azoka proba egiteko une polita izan daitekeela. Durangoko Azokan kantu-liburu asko kaleratzen direla aprobetxatzea ere aukera polita iruditu zaigu tailer honi begira.

Aurreko edizioen zer balantze?

Saguganbarak arrakasta bermatua izan du azken urteetan: beti dago topera. Bai-



na, bertara hurbiltzen direnak zergatik datozen jakitea inportantea da, eta, batez ere, formatu txikiko gauzetan gurasoek euren ekarpenak egitea eskertzen dugu.

Liburu aurkezpenak ere hartzen dituzue Saguganbaran.

Hainbat liburu aurkezpen izango dira Saguganbaran. Esaterako, haur eta gazte literaturako Euskadi saria irabazi duen Xabier Olasoren *Tximeletrak* edo Leire Bilbaok idatzi eta Maite Mutuberriak ilustraturiko *Gerrak ez du izenik* liburuak aurkeztuko dituzte. Ipuin kontaketa bidez aurkeztuko du Bilbaok liburuak, Mutuberria ilustratzaileak bertan marrazten duen bitartean. Egileek

umeentzat bereziki pentsatutako aurkezpen erakargarriak egiten dituzte.

Ikasleen egunagaz abiatuko da azoka.

Berbarok aritu da horren antolakuntzan. Berbarok jardun du Ikasleen eguna koordinatzen, bai: gune bakoitzak egun horretarako egindako eskaintza bateratu dugu. Deialdi zabala egin dugu, eta Euskal Herri osoko 2.700 ikasle eman dute proposatu dizkiegun ekimenetan parte hartzeko izena. 950 ikaslerentzako lekua daukagunez, zozketa egin behar izan dugu. Gune bakoitzak ikasleentzako ekimenak antolatu ditu abenduaren 5erako: Saguganbaran, esaterako, kaze-tarritza tailerra antolatu dugu Anbotoren leguntzagaz.

> MUSIKA

Euskal kanten emanaldia, etzi, Plateruenean

> I.E.

Domekan, 18:30ean izango da Euskal Kantuzaleen Elkarteak antolatu duen emanaldia, Durangoko Plateruenean. Bizkaiko eta Arabako abeslariak jardungo dute Durangoko hitzordu horretan, tartean, Euskal Herriko txapeldunek. Durangoko Xaramel taldeak ere eskainiko du emanaldia, pianoak lagunduta. Galdakao, Balmaseda, Gasteiz, Barakaldo, Ugao, Bermeo, Ermua eta Etxebarriko kantariak ere jardungo dute.

Bakarka zein bikoteka, eta askotariko instrumentuek lagunduta, ariko dira Estibaliz Asua, Maria Lazkano, Irantzu eta Iraia Rojo, Mirari Azkune, Aintzane Agirrebeña, Iraide Bilbao, Eneko Martinez, Guruzne Aristegi, eta Leire eta Iker Elizondo.

> JAILDIA

Aftitud ongintzako musika jaialdia, Beat Saladen eskutik

Bihar, 22:30ean, Durangoko Plateruenean ospatuko dute Aftitud jaialdia

> ITSASO ESTEBAN

Durangon hip hop musikaren inguruan dabilen Beat Salad Records Durangoko taldeak antolatu du Platerueneko biharko ongintzako jaialdia. Eurak bezala hip hop musikan diharduten hainbat talde gonbidatu dituzte elkartasunezko kontzertu horretan aritzera, eta Acción contra el hambre GKEak Mali herrialdean dauzkan proiektuetara bideratuko dute sarreretatik batutako dirua.

Lagun asko batu da ekimenera: kartel oso erakargarria osatu dute. Senegalgo raparen erakusgarri, egun Frantzian bizi den Gaston Banditmic eta Bilbon bizi den Big Thier gon-

bidatu dituzte, esaterako. Zargozako La Haine taldea eta Portugaleteko El Puto Ior & Kontrakulturlariak ere zuzenean ariko dira Plateruenean, bihar. Iaz kaleratu zuten *Lizard* diskoa aurkeztuko dute La Haine taldeko aragoiarrek, eta *Propaganda* izenez 2012an kaleratutakoa, El Puto Ior bizkaitarrek.

Aftitud jaialdi honen antolakuntzan diharduen Durangoko Beat Salad taldeko sortzaileek ere parte hartuko dute Platerueneko elkartasun kontzertuan: azken bost urteetako lanaren lagina zuzenean eskainiko dute Beat Salad Crew taldeko Itsua, Dj Jackie, Omzo MF, Ademas eta Gunflow-k.



Gaston Banditmic abeslaria.

GEURE DURANGALDEA

MIREN AMURIZA

Bertsolaria

**Conchita Wurst**

Udaberrian ospatuko den Eurovision festibala dela eta, hautsak harrotu dira azken asteotan. Austriak Conchita Wurst artista transexuala izendatu du bere ordezkari, baina jende asko agertu da hautaketa horren aurka, eta zenbait herrialdek lehiaketan ez parte hartzeko mehatxua ere egin dute.

Izen artistiko femenino horren atzean, Tomas Neuwirth kantaria dago: emakumez jantzia eta orraztuta ohol-tzaratzen da, emakume gorpuzkeraz, emakumeek bezala kantatuz, mugituz... Baina bere izatea alboratu gabe, bizar beltz-beltza luzitzen du errimel eta karmin gorriarekin batera. Eta, noski, gizarteak eredu estandarretatik at dagoen guztiari erantzun ohi dion bezala erantzun dio: ukapenarekin.

Den orok, etiketa bat behar duela dirudi. Zergatik estutzen gara horrenbeste gauzak izendatu, sailkatu, banatu, definitzen? Ezkerrekoa edo eskumakoa, laguna edo etsaia, zuria edo beltza, neska edo mutila... Beste esparru askotan lez, generoaren kasuan ere txanponaren alde batean edo bestean kokatzen irakatsi digute, hari luze batean geure lekua aurkitzen barik. Batzuk hariaren muturretan egongo dira, baina beste askok tartean dagoen continuum luzea osatzen dute; izaeraren, momentuaren edo begiratuaren arabera maskulinoago edo femeninoago sentituz.

XXI. mendeko Europa homofobia. Gabiltzan kontuz ustez gainditutzat ditugun arazoekin, zeren noizbait alfonbra altxatu eta azpian ezkutatu dugun zikinkeria guztia ateratzen bada...

> KRONIKA KANTUAREN KANTOIA 2013, PLATERUENA. AUDIENCE

Anaiak, osabak eta beste

> UNAI ITURRIAGA

Audience taldeko Gaizka eta Ager Insunza izan ziren Kantuaren Kantoiko bigarren zitako gonbidatuak. Abizenak berak adierazten duenez, anaiak dira Gaizka eta Ager, eta, gainontzeko taldekideen ekarpena gutxiesteko ezelako asmo barik, baliteke euren ge-

nealogia musikalak baldintzatu izana, neurri handi batean, ezagutzen dugun Audience.

Aita eta osabak

Apustu egingo nuke hogeitamar urte baino gehiago badi-tuzu ez zarela zure aitaren Seat 127an Lou Reed, The Beattles edo The Rolling Stones entzu-

nez joan hondartzara bidean. Eurak bai. Etxean sekula ikusi ez arren, han zirela beti Osaba Lennon, Osaba Paul edo Osaba Ringo. *Rock&Roll Animal* entzuten zutela, zuk *Nere herriko neskatxa maite* entzuten zenuenean, eta Bowie jo nahi zuela pianoarekin Gaizkak, Mozarten partiturak jartzen

zikiotenean. Halako memoria musikalarekin, beharbada, errazago ulertzen da zelan sortu zen Audience Gernikan.

Gernikatik New Yorkera

Ez dakigu Berlindik pasata edo pasa gabe, baina horiek dira, momentuz, Audienceko kideen bidaia musikalaren bi muturrak. Tartean Bilbo Hiria Rock lehiaketa eta kritikaren txaloak jaso arren, taldea hobby bitaltzat daukate, eta euren burua ez dute musikaritzat. Zuek akaso ez, baina guk entzun genituen Reeden *Take a walk in the wild side* eta Dylanen *Hurricane* jotzen. Musikariak dira, eta ez edozelakoak.

'Big Affair'

Halaxe du izena New Yorken John Agnelloarekin grabatutako diskorik berrienak. Eta bai, kontu handiak darabiltzate esku artean aitaren, (amaren) eta osaben semeok.

BINTA
The Great Idea
Javier Fresser, 2004
Azaroak 15 • 19:30
Antolatzailea: Uztartuz

Hamlet
Artedrama, Dejabu,
Le Petit Théâtre du Pain
Azaroak 17 • 19:00

San Agustín KULTUR GUNEa
DURANGOKO UDALA

PLATERUENA Durangoko Kafe Antzokia

www.plateruena.net

AZAROAK 15 - 20:00etan DOAN
TXELU ANGOITIA
"Bestearen begirada" + Musika zuzenean

AZAROAK 16 - 22:30ean 8/10euro
AFTITUD Hip Hop festibal benefikoa
GASTON BANDITMIC, LA HAINE, BEAT SALAD CREW, EL PUTO IOR, BIG THIER, BILBO SCRACH.

AZAROAK 20 - 20:00etan DOAN
NAPOKA IRIA KANTUAREN KANTOIA
BERBALDI MUSIKATUA

Eguneko menua astelehenetik larunbatera
Landako etorbidea, 4a 48200 Durango Tel.:946 030 300

Hemen agertu gura badozu deitu!

946 217 902

> PROGRAMAZIOA

Kultura programazio oparoa lotu dute datozen asteetarako Zornotzan

Zornotzako eta Euskal Herriko sortzaileen lanez gozatzeko aukera eskainiko dute aretoan



Abenduaren 7an (euskaraz) eta 8an (gaztelaniaz): KAPSULAK.

Antzerki eta musika eskaintza erakargarria luzatu du, datozen asteetarako, Zornotza Aretoak. Euskal Herriko antzerki-gintza garaikidean punta-puntan diharduten sortzaileen *Hamlet* klasikoaren bertsioa izango da, esaterako, azaroaren 22an, Zornotzako kulturagune horretan.

Duela hiru urte Euskal Herriko aretoak bete zituen *Errautsak* obraren egileek, Artedrama, Dejabu Panpin Laborategia eta Le Petit Théâtre du Pain antzerki taldeek, sorturikoa da *Hamlet*. William Shakespeare idazle ingelesaren XVII. mendeko obraren moldaketa horrek begiratu berritzailea egiten dio klasikoari.

“XXI. mendean eta Euskal Herrian” kokatu dute sortzaileek William Shakespeare idazleak XVII. mendean sortu zuen Hamlet

Xabier Mendiguren idazle eta editoreak egin du Shakespeareren testuaren euskararako egokitzapena, eta XXI. mendeko euskaldun bilakatu du Ander Lipusek antzeztzen duen Hamlet: “Gaur

eta hemen” kokatu dute sortzaileek Hamlet pertsonaia unibertetsala. Shakespearrek maisuki marraztu zuen “munduaren eromena” gure errealtaterara ekarri gura izan dute sortzaileek, eta politika munduaren inguruan ardaztu dute: Boterearen inguruan sortzen den “anbizioa, gezurra, jukutria, kalkulua, konplota, dirugosea” dira moldaketa honen oinarriak.

Ximun Fuchek dihardu obraren egokitzapenean zuzendari lanetan, eta Ainara Gurrutxaga, Manex Fuch, Maika Etxekopar, Iñaki Ziarrusta, Miren Tirapu eta Urko Redondo aktoreek dihardute Ander Lipusegaz batera, oholtzan. Aktore

bakoitzak hainbat pertsonaia antzeztzen ditu emanaldian. Espazio huts eta argitsu kokatu dituzte sortzaileek zazpi aktoreak, eta Asier Ituarteren musikak lagunduta, Phillipe Ducouren koreografia-lana du ikuskizunak.

Markeliñeren ‘Kapsulak’

Abenduaren 7an euskaraz, eta 8an gaztelaniaz (18:00etan, bietan) eskainiko du Markeliñe Zornotzako antzerki taldeak *Kapsulak* ikuskizuna. Emanaldi bikoitzagaz estreinatuko dute euren azken lan hori antzerki konpainia sortu zen herrian, Zornotza Aretoan.

Samfaina de Colors konpainia katalanarekin elkarlanean sortu du *Kapsulak* ikuskizuna Markeliñek. Folk-rock musika, ikus-entzunezko proiektzioak eta antzerkia uztartuko dituzte emanaldian. Sortzaileen berbetan, “ikus-entzuleei egunerokotasuna zeinen gauza miragarria den gogorarazi” gura diete *Kapsulak* ikuskizunaren bitartez, eta, “bizitzako poz txikiez” jabetzera gonbidatu.



Azaroaren 22an, 21:00etan: HAMLET.

Abes Kimuren 25 urteak ospatzeko, kontzertua

Emanaldia eskainiko du Abes Kimu abesbatzak hilaren 30ean

Talde sortu zutela 25 urte bete direla ospatzeko, azaroaren 30ean, 20:00etan, kontzertu berezia eskainiko du Abes Kimu abesbatzak Zornotza Aretoan. Bi parte izango ditu emanaldiak, eta abesbatzak bere ibilbidean kantatu dituen abesti kuttunak eskainiko dituzte, “betikoak, baina taldearentzat zer edo zer berezia dutenak”. Kontzertuaren lehenengo zatian *Horra hor goiko, Ai hori begi ederra* edo *Lehoi erregea* eskainiko dituzte, esaterako. Bigarren partean, perkusioak, biolinak edo pianoak lagunduta, lau kanta eskainiko dituzte; tartean, *Lau teilatu*.

Abesbatzak bere ibilbidean kantatu dituen abesti kuttunak eskainiko dituzte, “betikoak, baina taldearentzat bereziak direnak”

Emakumezko eta gizonezkoen aho-
tsen korua da Abes Kimu azken 10-15
urteotan. Hamazazpi eta 50 urte arteko

30 kide biltzen ditu taldeak, eta Mireia Izagirreren zuzendaritzagaz jardungo dira kantari guzti horiek azaroaren 30eko emanaldian.

Talde egonkorra da Abes Kimu, izan ere, hamar urtetik gora daramate kide gehienek bertan. Parte hartzera gerturatu gura duten abeslari guztiei zabalik dago, gainera, taldea.

Karmelo eskolako Aita Eliseok erein zuen, 1987an, Abes Kimu izango zena-
ren hasia. Herrian deialdi zabalagoa

egin zuten 1988. urtean, eta horrela sortu zuten abesbatza. Itxaso Iriondo abesbatzeko kideak azpimarratu duenez, kulturaren alde lan inportantea egin zuen Eliseok: “Gure taldea sortzeaz gainera, antzerki talde bat eta umeen abesbatza sortzea ere bultzatu zuen”.

Ekainean egin zuten taldearen 25. urteurrena ospatzeko lehenengo ekimena: meza batean elkartu ziren, eta herriko beste abesbatzak ere gonbidatu zituzten bertara, eurekin kanta zezaten.



Azaroaren 30ean, 20:00etan: ABES KIMU abesbatzaren 25. urteurreneko emanaldia.

> ITSASO ESTEBAN

2010 eta 2013 urteen artean egin-dako lanetik Xabier Gaztelumendi (Durango, 1984) pinto-reak berak egindako hautaketa dago Durangoko Arte eta Historia Museoan ikusgai. Bertarazten direnek abenduaren 3ra arte ikusi ahalko dute 35 koadroko bilduma, Durangon.

Olioagaz egindakoak dira erakusketako koadro gehienak, baina ikatzagaz egindakoak ere badaude bertan. Azken aldian, “krisiari buruz, baina ez krisi ekonomikoari buruz bakarrik, balioen krisiari dagokionez ere egin ditudan gogoetak” dira, Gaztelumendiren hitzetan, ikatzagaz margotutakoak.

Durangoko margolariak dioenez, “autobiografikoak”, berari eta bere inguruari buruzkoak dira bere koadrook: Durango, Belchite, Almuñecar, Alhambra edo Munichen ikuspegiak, zein gurasoen erretratuak. Egilearen berbetan, “oso erakusketa pertsonala da”.

Errealitatearen misterioa

Duela bi urte Durangoko Ezkurdi aretoan erakusketa ipini zuenetik, margolari gazteak bizi izan duen garapena erakusten du bilduma honek. Duela hiru urte bezala, “errealitatea ahalik eta artifizio gutxienekin” islatu guran dihardu Gaztelumendik orain ere. Hala ere, bere berbetan, “errealitatearen misterioaren” bila ere badabil azken urteotan: “Egia makillajerik barik, ahalik eta zintzotasun handienagaz islatu nahi dut”.

Madriren bizi da Gaztelumendi, eta Prado Museoko bilduma aztertzea erritu bilakatu

Xabier Gaztelumendiren azken urteotako margolanak ikusgai

Abenduaren 3ra arte, Durangoko Arte eta Historia Museoan dago erakusketa



Gaztelumendi, bere aitari egindako ‘El anticuario’ izeneko erretratuari begira.

ei du, teknikoki gehien interesatzen zaizkion maisuengandik ikasteko. Erreferentetzat ditu, Velazquez, Rembrant, Ribera, Pinazo, Fortuny edota Sorolla.

Madrilgo Prado Museoan, hilabete baino gehiagoz jardun zuen Xabier Gaztelumendik iaz, José Moreno Carbonero margolariaren koadro baten erreplika egiten. Durangoko bilduman ikus daiteke emaitza.

Durangoko museoak eskainitako tratuagatik esker ona adierazi du Gaztelumendik: “Askatasun guztiagaz egin dut hautaketa, eta katalogo oso txukuna argitaratu dute”.

Antonio Lopezen babesean egindako ‘La carne’ ere ikusgai

2012ko udan, Antonio Lopez margolari ezagunak Xabier Gaztelumendi hautatu zuen, bere babesean margotzen jardun zezan. Astebetez, Lopezen ikasle izateko eta bere gomendioak jasotzeko pribilegioa izan zuen, Albaceteko museo egoaldian. Durangoko Arte eta Historia Museoan erakusketan ikus daiteke emaitza: *La Carne* izeneko koadroa. Gaztelumendik dioe-

nez, Lopezen gomendioa izan zen koadroak orain daukan forma amaigabe eta abstraktu horretan uztea margolana.

Antonio Lopez pintorearen lana bezala, Francis Bacon eta Lucian Freuden teoriak eta gogoetak ikasgai dituela aitortzen du Xabier Gaztelumendik. Horiekin sentitzen da identifikatuen, “itxura batean gure koadroek elkarren antzik ez duten arren”.

> MUSIKA

Musikaldiak bi kontzertu dakartza Iurretara

> I.E.

Gaur, 19:30ean izango da Iurretako Musikaldia zikloko bi emanaldietan lehena. Urban Ensemble taldea ariko da Ibarretxe kultur etxean. Jasone Etxebeste, Mikel Emezabal, Marixi Sesma eta Carlos Casadó klarinete-jotzaileek osatzen duten laukoteak Aita Donostiaren, Piazzollaren eta Jesus Guridiren obrak interpretatuko ditu, Iurretan.

Aita Donostiaren, Guridiren eta Piazzollaren obrak interpretatuko dituzte gaurko Ibarretxeko emanaldian

Azaroaren 22an izango da Musikaldiko bigarren hitzordua, Iurretan. OIZpe Sax 4tet Durangoko saxo laukoteak eskainiko du bigarren emanaldi hori, 19:30ean, Ibarretxan. Cristina Romo, Lexuri Armentia, Martin Gabiria eta Itziar Castriello dira taldeko partaideak, eta herri musiken kutsu handia daukan erreperatorioa eskainiko dute, Iurretako musika zikloaren barruan. Emanaldia- ren lehenengo partean, Pedro Iturralde saxofonista nafarra omenduko dute bere hiru pieza jota, eta Azkuze eta Piazzollaren lanak ere eskainiko dituzte.

> KRONIKA > BERTSOLARI TXAPELKETA NAGUSIA 2013, TOLOSAKO FINALURREKOA

Bertsoaldi onetan, eta estutasun momentuetan ere, txalo

> AMAIA UGALDE

Igor Elortzak, saio ederra eskaini eta gero, lehenengo egin du Tolosako finalurrekoan, eta Unai Iturriagak hirugarren –Etxahun Lekuegaz berdinduta–. Bata zuzenean, eta bestea puntuazioagatik, Bertsolari

Txapelketa Nagusiko hurrengo fasera sailkatuko dira. Estutasun momentua egon zen Tolosan, Iturriagaren kartzelako poto bat tarteko, baina saio guztiko maila onak azkeneko puntuazioan lagundu egin zion.

Musu berbagaz kartzelan poto egin zuela konturatu zenean, Unai Iturriagak eskuak burura eroan zituen, eta jendea txaloka hasi zen. Emozio puntu hori izaten du sarritan bertsolaritzak, eta bertsoaldi onak



Igor Elortza eta Unai Iturriaga. Argazkia: Gari Garaialde.

txalotzeaz gainera, babesa emateko ere publikoak badaki bero txalotzen. Tolosako Usabal kiroldegian 1.732 lagun batu ziren. Oholtzan, Elortza eta Iturriagarekin kantuan ibili ziren Iñigo Mantzisidor *Mantxi*, Etxahun Lekue, Jexux Mari Irazu eta Amaia Agirre.

Polito ibili ziren durangarrak, eta Elortzak lortu zituen puntu gehien, 722. Ideietan fresko ibili zen, dotore. Kartzelan xamur kantatu zuen: Bertsolariei korridoreko argia amatatuta lokartzeak beldurra ematen zien. Elortza hartz txiki eta guzti irudikatu zuen publikoak, alaba txikiaren papearean. Iluntasunari beldur, hala-ko batean aita komunera joan, eta argia piztuta uztea ahaztu zitzaion. Amaieran polito biribildu zuen; “gustora egingo dut hemen lolo / ahaztuta mamu eta mozolo / babes leku eder batean / aita ta amaren ohean”.

Iturriagaren bi musuak

Unai Iturriagak ateraldi politak izan zituen Tolosan. Amaia

Agirregaz batera, adinean aurrrera egin, eta orduantxe gorputzarekin deseroso sentitzen hasi ziren. Barre algarak sortu zituen publikoan: “zimurrak ez dituzu hainbeste / mitxelin, aizur mesede / oso guapa ikusten zaitut nik / benga, esaidazu zeuk ere”.

Puntu erantzunetan eta kartzelan irrist egin zion ordea bu-ruak, eta poto egin zuen. Puntu erantzunetakoa, zalantzakoa: “Makina bat lagun” eta “ni ez naiz horien lagun” esaldietan *lagun* hitzak ez dauka esangura berdina. Poto al da?


Kartzelakoan, preso egon eta gero etxean lotarakoan txarto pasatzen zuenaren pa- peretik kantatu zuen. Azken bertsoan, *musu* berbagaz egin zuen poto. Agurrean, bere bu-rua hurrengo fasean ikusten ez zuela, jarri zuen ginda: “Aulkiak jartzea ere / da langintza duina / eskerrik asko eta / musu handi bina”. Saio osoko mailak puntu ugari eman zit- kion, ordea. Hurrengo fasean izango da.

Kirola

Iker Arroitauregi | 36 urte, Bilbo. Eskalatzailea

“Bloke eskaladan psikologiak ere eragiten du, eta faktore horrek motibatu egiten nau”

Erdella Mendizale Taldeak Elorrion antolatutako Mendi Astearen barruan, Iker Arroitauregi eskalatzaileak ‘Harri aroa’ dokumentala estreinatuko du gaur, 19:30ean, Iturri kultur etxean



Iker Arroitauregi arrokan eskalatzen.

> JOSEBA DERTEANO

Orain hiru urte langabezian geratu zenean, autokarabana hartu, eta blokeko eskaladan bide berriak irekitzen hasi zen. Penintsula osoan ez ezik, Hegoafrika eta Frantzia ere ibili da. Elorrion ibilera horiek batzen dituen dokumentala erakutsiko du.

Zer ikusi daiteke ‘Harri aroa’ dokumentalean?

Azken urteetan bidaiatu dudan askotariko tokietan egindako bloke gogorrenekin eta ikusgarrienekin osatutako dokumentala da.

Estreinaldi bikoitza izango duzu, jendaurrean azalpenak emango dituzun aurreneko aldia izango delako.

Egia da, bai. Ez nuen pentsatzen horrelakorik sekula egingo nuenik, baina egindako lana jendea-ri erakustea, eta euren galderak erantzutea ere gauza polita iruditzen zait. Beste erronka bat izango da.

Arroketako bloke eskaladan erreferente zara. Baina zer da bloke eskalada?

Arroka blokeak edo pareta laburrak igotzean datza, eskaladan ohikoak diren babesik gabe: soka, arnesa... Arrokek hiru-lau metro izan ditzateke; garaipenak, sei-zortzi metrora heltzen dira. Igoera arriskutsuak izaten dira, eta psikologiak garrantzi handia hartzen du.

Aipatu izan duzu alderdi psikologiko horrek erakarri egiten zaituela.

Bloke eskaladan psikologiak ere eragiten du, eta faktore horrek motibatu egiten nau. Bloke altuak egiteak gogobetetze berezi bat eragiten dit.

Azpian ipintzen den koltxone-
tak zer segurtasun maila eskaintzen du?

Azpian zenbat eta koltxone-
ta gehiago ipini, segurtasuna handiagoa da. Horrez gainera, azpian jendea egotea komeni

da, jarrera txarren batean jausiz gero, kolpea ahal den neurrian baretzeko.

Zelan egiten duzu igo beharreko blokeen aukeraketa?

Bloke bat gustatzen bazait, eta garaia bada, lehenengo sokagaz lotuta egiten dut, batez ere, goren-
go zatia probatzeko. Horrela, blokeak zer zailtasun duen, eta jausteko zer arrisku dagoen neurtzen dut. Sei-zortzi metroko altueretan arriskua handia da. Blokeko igoera bati ezin dakioket edozein modutara aurre egin, eroriko ez zaren segurantz izan behar duzu.

Erortzen ikasi egiten da?

Txikitatik gustatu izan zait altueretatik salto egitea. Bloke altuak egiten ditudanean uste dut badudala segurtasun hori, badakidalako zelan jausi.

Txikitatik datorkizu afizioa. Zelan zaletu zinen eskaladaren mundura?

Txikitan, nire etxe ondoan tunel batean kaleko eskalada-horma antzeko bat zegoen, eta Bilbo inguruko jendea han batzen zen eskalatzerantz. Hantxe ematen nituen arratsalde guztiak.

Azken hiru urteetan bloke eskaladan zentratuta zabilta.

Orain hiru urte langabezian geratu nintzen. Hasieran ardurata nengo, bizimodua zelan

“*Sei-zortzi metroko garaieran arriskua handia da; ezin zaio edozelan aurre egin horrelako bloke bati*”

antolatuko ote nuen... Lan bila ibili nintzen, baina gaur egun oso zail dagoenez, benetan gustatzen zaidan hori egiten hasi nintzen. Azken urteetan autokarabana hartu, eta batetik bestera nabil, bertan bizitzen, eskalatzen eta blokeak irekitzen.

Penintsulan zehar maiz ibili zara. Gustuko tokiren bat?

Gehien gustatzen zaidan tokie-

tako bat Albarracín (Teruel) da. Madril inguruan ere eskalatze-
ko leku asko eta oso onak daude, eta neguan beti joaten naiz pare bat hilabetez. Galizian eta Euskal Herrian ere toki onak daude. Oraindik ezagutzen ez ditudan gune batzuk ere badaude, Anda-

“*Egiten ari naizen horretatik bizimodua atera gura nuke, baina zaila da diru-laguntzak lortzea*”

luzian, esaterako. Normalean toki ezagunetara joaten naiz, aldizkariren batean irakurri edo lagunen batek gomendatu didalako. Toki horietan bloke eta bide berriak irekitzea gustatzen zait.

Penintsulatik kanpora, besteak beste, Hegoafrika eta Frantzia ibili zara.

Hegoafrikara mundu osoko jendea joaten da. Iaz hilabete bi eman nituen bertan. Lurmutur Hiritik gertu dagoen Rocklands ingurua oso ezaguna da. Hemen uda denean han negua da, eta baldintza onak ematen dira eskalatze-
ko. Fresko egiten du, eta eskalatu egin daiteke; urteko gainerako hiletan bero handie-
gia egiten du.

Frantziako Fontainebleau eremuak denetarik du: blokeen kantidadea eta kalitatea. Horregatik egoten da beti hainbeste jende bertan eskalatzen.

Aurrera begira zer asmo duzu? Datorren urtera begira Fontainebleaura joan gura dut, han proiektu batzuk ditudalako. Horren ostean, Suitzara joan gura nuke, bloke gogor asko daudelako. Egiten ari naizen horretatik bizimodua ateratzea gustatuko litzaidake. Egia esanda, gaitza da, kirol hau ez delako hain ezaguna, eta zaila delako diru-laguntzak bilatzea.

Atxarte ingurua ezaguna zaizu? Gomuta asko ditut Atxarten. Txikitan ordu asko eman ditut han. Toki klasikoa eta oso polita da.

AGENDA

> PILOTA

OLAZAR TXAPELKETA
(final laurdenak)

Lau 1/2 erdian:

- Etxebarría-Errandonea

Binaka:

- Artola-Tolosa / Andreu-Aldape

· Azaroaren 21, 21:30, Zaldibarren

> FUTBOLA

OHOREZKO MAILA

Elorrio-Deusto

· Zapatuan, 16:00etan, Eleizalden.

MAILA GORENA

Zaldúa-Indautxu

· Zapatuan, 17:00etan, Solobarrian.

LEHEN ERREGIONALA (Gizonak)

Berriz-Busturia

· Domekan, 11:30ean, Berrizburun.

BIGARREN ERREGIONALA

Ezkurdi-Orduña

· Zapatuan, 18:30ean, Arripausetan.

Iurretako B-Montefuerte

· Domekan, 18:00etan, Larrakozelaian.

LEHEN ERREGIONALA
(Emakumeak)

Iurretako-Ariz

· Zapatuan, 18:30ean, Larrakozelaian.

> ARETO FUTBOLA

HIRUGARREN MAILA

Mallabia-Hirukide

· Domekan, 18:00etan, Zaldibarko kiroldegian.

Sasikoa-Internacional

· Zapatuan, 18:30ean, Landakon.

EMAKUMEEN LIGA

Sasikoa-Atxure Bakio

· Zapatuan, 17:00etan, Landakon.

> SASKIBALOIA

LEHENENGO MAILA (Gizonak)

Tabirako Baque-Goierri Verkol

· Zapatuan, 17:00etan, Landakon.

BIGARREN ERREGIONALA

Julza Zaldúa-Gordexola

· Barikuan, 20:00etan, Zaldibarren.

> ERRUGBIA

EUSKAL LIGA

Elorrio-Hernani

· Zapatuan, 16:00etan, Elorrion.

> MENDIA

ELKARTASUN IBILALDIA

Iurretako auzoetatik, 22 eta 12 kilometroko ibilaldi bana. Kolonbiarekin elkartasuna.

· Domekan, 09:00etan, Iurretako frontoitik. Zaldai Mendi Taldeak antolatuta.

> SOKATIRA

Abadiñok ezin du hutsik egin Iurretako jardunaldian

Goma gaineko lauko txapelketan, 320 kilora arteko bigarren jardunaldia jokatu du Abadiñok Iurretan; lehen sailkapen saioan hirugarren geratu ziren



Abadiño sokatira taldeak denboraldiko lehenengo finalera sailkatu gura du bihar.

> JOSEBA DERTEANO

Sokatira denboraldia martxan dago. Urtero moduan, goma gaineko lauko txapelketekin hasi dute. 320 kilokoan inoiz baino talde gehiago dabilta aurten: 26 guztira. Horregatik, finalerako sei taldeak erabakitzeko lau sailkapen saio antolatu dituzte. Aurreneko biak joan zen asteburuan jokatu zituzten, eta asteburu honetan beste bi izango dira; horietako bat bihar, Iurretan.

Heki Iurretako herri kirol taldeak antolatuta, zapatuan, 17:00etan, 13 talde lehiatuko dira Olaburu pilotalekuan: Abadiño, Ñapurak B, Apurtuarte, Iparralde, Nabarniz, Baigorri eta 6 Conceyos multzo batean, eta Sokarri B, Murueta B, Urruña B, Iparralde B, Ibarra B eta Lagun Onak, beste multzoan.

Lehenengo jardunaldian, Abadiño hirugarren tokian sailkatu zen, eta bihar beharrezko

dute gutxienez postu hori berdintzea, azaroaren 23an, Aian jokatu den finalera sailkatzeko. Joan zen asteburuko jarduna Sokarri eta Baigorri irabazi zuten, eta, ondorioz, hanka eta erdi finalean dute. Domekako beste jardunaldia Mungian lehiatuko dute beste 13 taldeek.

Txapelketa honen ondoren 300 kilokoa hasiko da. Eta beste lau sailkapen faseren ostean, Ibarra jokatu du finala.

> GOMAZKO PALETA

Gasteizko finala irabazi dute Pradera eta Garciak

Itsaso Praderak erasokor jokatu zuen finalean

Itsaso Pradera mallabitarrak eta Lis Garcia argentinarrak Munduko Pilota Batzarrak antolatutako nazioarteko txapelketa irabazi dute. Joan zen zapatuan, Gasteizen jokaturako finalean, 30-23 menderatu zituzten Nagore Martin eta Ane Isasmendi arabarrak. Ligaxkako partiduan bikote beraren kontra

galdu ostean, Pradera erasokor rago kantxaratu zen finalean, eta bizi erabili zuen pilota. Garcia oso seguru aritu zen atzean; gutxi galdu eta pilota zail asko eraman zuen.

Hirugarren tokia erabakitzeko atariko partidua Miren Goikoetxea eta Laura Saezek irabazi zuten.

> ZIKLO-KROSA

Elorrion irabazi ostean, Belgikara doa Murgoitio

Joan zen domekan Elorrion jokatu zuten ziklo-kros proba Egoitz Murgoitio (Hirumet-Orbea) irabazi zuen. Zirkuitu lokaztuan, Aitor Hernandez eta Javier Ruiz de Larrinagak osatu zuten podiuma. 23 urtez azpikoan Jonathan Lastra izan zen onena. Asteburuan lasterketa bi lehiatuko ditu Belgikan Murgoitio: Biher, Hasselt proba, eta, etzi, Gavereko Superprestigioa.

> AUTO LASTERKETA

Urienek podium batekin itxi du denboraldia

Kataluniako zirkuituan Europako F3 Txapelketako azkenengo proba jokatu zuen Igor Urienek joan zen asteburuan. Zapatuan denboraldiko bosgarren podiuma lortu zuen (Monzan irabazi egin zuen), bigarren amaituta. Domekan, laugarren sailkatu zen.

Zapatuko sailkapen saioan *pole position*-a lortu zuen. Lasterketako lehenengo metroetan pneumatiko berrieekin irten zen Tommaso Menchinik aurreratu zuen. Handik aurrera Urienek bigarren postua defendatu zuen. Domekan, nahiko atzetik hasi zuen lasterketa, eta laugarren postura arteko bidea egin zuen. Azkenean, F308 Kopako sailkapen nagusian laugarren amaitu du abadiñarrak. Richard Gonda eslovakiarra izan da irabazlea.

> KM BERTIKALAK

Espainiako txapelketa irabazi du Larizek

Mugarra Triatloi Taldeko triatloi eskolaren arduraduna den Iñigo Lariz elgoibartarrak kilometro bertikalen Espainiako txapelketa irabazi du asteburuan, Puig Campana (Valentzia, Finestrat) proba irabazita. Probako 3,6 kilometroak (1.020 metroko desnibel positiboa) 39.26ko denboran osatu zituen. Raul Garcia eta Agusti Roc korrikalariak osatu zuten podiuma. Garcia behin baino gehiagotan izan da Espainiako txapelduna, eta Roc munduko txapeldun izandakoa da. 2011n Oier Ariznabarreta durangarra bigarren geratu zen Espainiako txapelketan.

Aurten Zuzenien eta Fuente de kilometro bertikalak ere irabazi ditu Larizek, eta hainbat bider podiumean sartu da: Beriainen eta Aratzen, esaterako. Urrian kilometro bertikalean Lafuma zirkuitua ere irabazi zuen.

ADITUAREN TXOKOA



Oihana Azkorbebeitia



EHko mendi lasterketen taldeko hautatzailea

Helburua, irabaztea?

Lasterketa guztietan, lehiaketa diren heinean, irabazle bakarria egoten da, helmuga-ko lerroa lehenengo igarotzen duena. Hark bakarrik irabaziko du txapela (bakoitzak bere kategorian, jakina). Txapel bakarria izatera, helburu eskuratzeko bizi behar du gehienontzat. Zein da orduan lehiatzera bultzatzen gaituen helburua? Nire kasuan oso gaztetan hasi nintzen lasterketa munduan, hasieran atletismoan, eta, azken urte hauetan, mendiko lasterketetan. Umetan ez dago helburu zehatzik: lagun artean goiz polita pasatu, eta, lasterketa amaitu eta gero, bokata eder bat jan. Eta domina bat lortuz gero, ezin hobeto.

Urteak pasatu ahala, eta adinean aurrera egin ahala, jabetzen gara lehiaketa zer den, eta zergatik lehiatzen garen. Hori bai, lasterketa ona egitea da helburua, ahalik eta postu onenean bukatzea, eta, noski, ahal izanez gero, irabaztea. Baina gerora, urteetan hainbat lasterketatan parte hartu eta gero, eta, batez ere, mendiko lasterketetan ibili eta gero, hasierako helburu handi eta bakar hura helburu xume eta arrunt bilakatzen da, niretzat bai, behintzat. Zergatik hartzen du parte horrenbeste jendeak Euskal Herrian mendiko lasterketetan? Irabazteko? Ezetz esango nuke. Bertako giroa, lagunartea, mendi ingurua... Lehiatu bai, baina beste era batera. Helburua: goiz zoragarri bat igarotzea ingurumenaz eta lagunartez gozatuz.





GREMIOEN GIDA



DEKORAZIOA

Jaio barnizatuak

- Markoen, ateen, zokaloen, armairu aurrealdean eta era askotariko altzarien lakatua.
- Pintura eta pintura apungarria.
- Era guztietako zaharberritzeak egiten ditugu.

Eitua Industrialen, 45 Garain A - Berriz
Tel.: 946 824 143 - 658 758 421
Fax: 94 682 48 95 - info@jaioarnizatuak.com



ELEKTRIZITATEA ARGIZTAPENA

ARGIZTATZE TEKNIKAK
MARKIEGI

Plateruen plaza 4, behea
48200 Durango
Tel.: 94 620 35 20
94 620 21 76
Faxa: 94 681 56 95
markiegi@markiegi.com



ITURGINTZA

Solaguren kalea 3 - ABADIÑO
Tel.: 94 681 44 74
Faxa: 94 621 53 74
urtiaga.sit@terra.es

urtiaga
gremioen koordinazioa

BAINUGELAKO KOMUN ONTZIAK ETA BEROGAILUAK
AZULEJO, ZOLADURA, TEILA, ZERAMIKA ETA HORMIGOIA
ERAKUSKETA, SALMENTA ETA EZARPENA



GARBIKETA

AZKARGI
GARBIKETAK

Bulego eta komunitate mantenimendua
Obra osteko garbiketa
Kristalizatuak eta alfonbrak

Goleta, 46 - 2. esk - Elorrio - 615 79 12 15



LOREZAINZA

Jardines
Patxi
Lorategiak

Mantenua eta Diseinua
Landaketa eta Inausketak
Ureztatze sistemak
Barrualde eta Kanpoaldea
Eskatu zure aurrekontua beldur barik

Santikurutz, 15 48200 DURANGO Myriam 696 463 086
Faxa: 944 668 853 Patxi 696 463 085

Mallabiena

M.Z.O. ITURGINTZA - GASA - BEROGAILUA - ERAIKUNTZA, S.L.

Mallabiena industriagunea, 6
48215 Iurreta • Tel.: 94 681 88 62
mallabiena@mallabiena.com

K21

Ubide
iturgintza

Iturgintza, gasa eta berokuntza

188 PK.
48200 DURANGO
94 603 05 06
625 70 22 08
ubide@euskalnet.net



**Profesional onenak
zure zerbitzura!**

Aisialdia

> MENDI IBILBIDEAK



Otxandiotik Urkiolara bidean baso eta ingurune ederrak topatuko ditu txirrindulariak. Durango MTB.

Otxandion hasi eta amaitu, Urkiola igarota

Indusi, Saibigain eta Urkiolatik zehar mendiko bizikletaz egin daitekeen ibilbideak Otxandion dauka irteera

Otxandiok paraje ikusgarrietatik kirola egiteko aukera eskaintzen du, tartean, Urkiola gurutzatuta. Mendiko bizikleta hartuta ibilbide atseginen hasiera eta helmuga da herria.

Ibilbideetako batek Otxandioko plaza du abiapuntu, eta erreka albotik doan bidegorria jarraitu behar du txirrindulariak Mekoletako bidegurutzearaino. Altunganeraino eragin

beharko die pedalei, futbol zelai pareatik pasatzen den pista hartuta.

Hurrengo urratsa Eguskin auzoraino jaitea izango du, eta gero Urrekoatxa mendaterai-


no. Gora ailegatu orduko, Indusira eroango duen pista bat hartuko du bizikletariak. Indusi auzoa zeharkatu, eta goranzko zati gogor bati ekin beharko dio orduan.

Pinudi bat igaro eta pista-tik aurrera segituko du txirrindulariak, Errialtasoren behealdetik. Bide horretatik jarraituta, Saibigain mendia inguratuko du.

Urkiolatik etxera

Saibigainetik beherantz jo, eta Urkiolara helduko da txirrindularia. Atsedean hartzeko leku aproposa izan ahal da; paisaje ederrean, gainera.

Urkiolako santutegiaren atzetik pista hartu, eta Otxandiora joatea izango da ibilbideko azken pausoa. Lehenengo, apur bat gora egitea eskatuko du ibilbideak, baina gero beheranzkoa izango da.



ZER IKUSI



Otxandio.



Saibigain.



Urkiola.

laguntzaileak





GAURSA-RA GERTURATU ZAITEZ, ESKAITZA GEHIAGO

DITUGU ZURI ITXAROTEN ETA EROSKETA BALDINTZA BIKAINAK.
GAUR BERTAN ETORRI ETA GURE IA-BERRI ETA OKM-KO AUKERA
ZABALA IKUS EZAZU. ITXAROTEN GAITUZU!

RENAULT OCASIÓN EMANGO ZENUKEENA HORRELAKO AUTO BATENGATIK

**PREZIOA
EKIPAMENDUA
BERMEA
AUKERA**



**RENAULT MÉGANE
EXPRESSION
1.5 dCi 110ZP
2012an matrikulatua
10.500€**

RENAULT CAPTUR INTENS ENERGY TCe.....	2013an matrikulatua.....	12.500€
RENAULT CLIO 1.5 dCi EXPRESSION 90ZP.....	2011an matrikulatua.....	9.500€
RENAULT CLIO GRAND TOUR 1.5 dCi EXPRESSION 90ZP.....	2011an matrikulatua.....	10.500€
RENAULT CLIO IV 1.2 EXPRESSION 75ZP.....	2013an matrikulatua.....	12.500€
RENAULT FLUENCE 1.5 dCi DYNAMIQUE 110ZP.....	2013an matrikulatua.....	12.800€
RENAULT GRAND SCÉNIC 1.5 dCi DYNAMIQUE 7 P. 110ZP...	2013an matrikulatua.....	16.600€
RENAULT KANGOO COMBI 1.5 dCi PROFESIONAL 70ZP.....	2011an matrikulatua.....	8.600€
RENAULT KANGOO FURGÓN 1.5 dCi PROFESIONAL 75ZP.....	2012an matrikulatua.....	9.600€
RENAULT KOLEOS 2.0 dCi PRIVILÉGE 150ZP.....	2011an matrikulatua.....	18.500€
RENAULT LAGUNA GRAND TOUR GT 4 CONTROL dCi 150ZP...	2011an matrikulatua.....	19.900€
RENAULT LATITUDE 2.0 dCi EXPRESSION 150ZP.....	2011an matrikulatua.....	14.500€
RENAULT MÉGANE COUPÉ 1.5 dCi DYNAMIQUE 110ZP.....	2011an matrikulatua.....	13.800€
DACIA SANDERO LAURÉATE 1.2 16V 70ZP.....	2012an matrikulatua.....	8.600€
RENAULT SCÉNIC 1.5 dCi DYNAMIQUE 110ZP.....	2012an matrikulatua.....	13.800€

RENAULT OCASIÓN

EGON ZAITEZ HARRO ZURE AUTOAZ

*Eskaintza baliagarria Renault Mégane 1.5 dCi Expression 110ZP, Renault Captur Intens Energy TCE, Renault Fluence 1.5 dCi Dynamique 110ZP, Renault Grand Scénic 1.5 dCi, Dynamique 110ZP 7 plazas, Renault Kangoo Furgón 1.5 dCi Profesional 75ZP, Renault Latitude 2.0 dCi Expression 150ZP eta Renault Scénic 1.5 dCi Dynamique 110ZP modeloetarako. Eskaintza baliagarria da RCI Banque Sucursal en España-rekin gubienez 4.000 € finantzatuta 24 hilabete baino gutxiagoko bigarren eskuko ibilgailuen deskontu-promozioaren bidez. Gubienezko epea 24 hilabete. RECSA eta Gaurak eskaintako deskontua. Ez da bateragarria beste finantza-eskaintza batzuekin. Kontultatu baldintzak kontzesionarioan. Eskaintza baliagarria partikularrentzat 2013/11/30ra arte. Ikusitako ibilgailua: Renault Mégane Expression.

Renault gomendatu **elf**




GAURSA

ARRIANDI, 12. TEL. 94 620 33 00. IURRETA.
DON DIEGO LOPEZ HAROKO KALE NAGUSIA, 65. TEL. 94 441 74 50. BILBO.

www.gaursaautoak.com

Inmobiliariak



ETXEBIZITZAK ALOKAIUAN

DURANGO

- Logela bakarreko, 2 logelako eta 3 logelako etxebizitzak alokairuan.

ETXEBIZITZAK SALGAI

- DURANGO. ARTEKALEA: 8 etxebizitza eraikitzen hasi gara. Logela 2 eta logela bakarrekoak. Trastelekuarekin. 140.000tik aurrera.
- LEKEITIO: 3 logela, komuna, sukaldea eta egongela terrazarekin. Garajea. Auzune pribatua. Igerilekua eta frontoia.
- DURANGO. Apartamentua. Logela 2, egongela, komuna, sukaldea eta despentsa. Berrizteko. 114.000.
- DURANGO. ERDIALDEAN: Logela 2, komun 1 eta sukalde amerikarra guztiz jantzia. Etxebizitza berria eta guztiz jantzia.
- ABADIÑO. ITURRITXO: Logela bakarreko apartamentua. Sukalde amerikarra egongelarekin, komuna eta esekitokia. Ganbara, garaje bikoitza eta trastelekua.
- DURANGO. ASK. ETORB.: 3 logela, komun 2, egongela eta sukaldea balkoiarekin. Trastelekua eta garajea.
- DURANGO. FRANTZISKO IBARRA: 3 logela, sukaldea, office-a, komun 2 eta egongela. Garajea eta ganbara.
- DURANGO. ERDIALDEAN: 123 m2. Etxe osoak kanpora ematen du. Berrizteko. Inguru onean kokatua. Prezioa zehazteke.
- DURANGO. ATIKO BERRIA ESTREINATZEKO. Logela 2, komun 2 eta sukalde amerikarra eta egongela. Garaje itxia eta terraza izugarriak.
- ATXONDO. 3 logela, komun 2, sukaldea esekitokiarekin eta egongela. Etxe osoak kanpora ematen du. Garajea eta trastelekua. Berria ematen du.
- ZALDIBAR. 3 logela, komuna, sukaldea eta egongela balkoiarekin. Guztiz berriztua. Trastelekua.

LUR SAILAK SALGAI

- BERRIZ. 10.000 m2-ko lursaila. Landa ederra eta sarbide ona.

MATIENA-ABADIÑO

- MATIENA-ABADIÑO. 2.000 m2-ko lursaila. Laua eta fruta-arbolekin.
- IURRETA. 5 hektareako lursaila. Abeletxe bat egiteko aukera dago. Sarbide ona.
- OLETA-OTXANDIO. 2.300 m2. Fruta-arbolak eta abeletxea ditu. Erreka ondoan kokatuta dagoen lursaila.
